

Euskal pelota selekzioa munduko txapeldun

Euskal selekzioak Munduko Txapelketea jokatu dau Argentinan eta lau urre, hiru zidar eta brontzeko domina bategaz bueltatu da eta irabazle izan dira bai andrazko zein gizonezkoen artean. Selekzioaren parte izan dira Amaia Aldai, Mikel Aurrekoetxea, Mikel Beldarrain eta Lur Ziarrusta pelotari arratiarrak eta talde teknikoan be arratiarren presentzia egon da Aitor Erauzkin hautatzaileagaz. **15. orrialdea**



Herriko Bentaren urteurrena, etorkizunagaz arduratuta

Aprilaren 18 eta 19an ospatuko da urteurrena, tartean *Guztiona da!* bideoklip aurkezpenagaz eta beste hainbat ekintzagaz.

Oin hamar urte zabaldu ebazan atek Arteako Herriko Bentak Artea Sarearen eskutik, etorkinentzako harrera etxe izan, elikadura burujabetzea bultzatu eta herri-gintzea kolektibotik egiteko helburuakaz. Hamar urtez ibili dira ekinean eta oin, esleipena amaitzeaz, Arteako Udalak lehiaketa publikora aterako dau eraikinaren erabilera eta beraz, Herriko Bentako kudeatzaileak arduratuta dagoz honen etorkizunagaz; eraikinak "balio soziala" izaten jarraitutea gura dabe, "eta ez turismorako bitarteko soil" dinoe. Eta batez be, harrera etxe duin bat mantendutea bermatu gura dabela adierazo dabe. **12. eta 13. orrialdeak**



ARTEA/LEMOA

Hauteskunde kanpaina badabil hurbilduten

2027an izango dira Udal Hauteskundeak eta jeltzaleek Esther Iturrioren kontrako mehatxuen artean iragarri dabe barriro izango dala Lemoako alkategaia. Arteako Udalean barriz, Alberto Intxaurragak alkatetzea itxi eta behin-behinean, Ainare Sanchezek hartuko dau lekukoa. **6. eta 7. orrialdeak**

ARTEA

Ailarak zentroko lehen emonaldia, ikasleen esku

Ailarak-Musiktopan lehenengo zuzeneko emonaldi irekia egingo da hilaen 19an. Euskal musika tresna tradizionalak izango dira kontzertuaren ardatza eta Arratiako Musika Eskolako zein Tarragonako musika ikasleak protagonistak. Gangorri taldekoek be egingo dabe jantzan. **6. orrialdea**

AREATZA

Karpoko jaiak, denporaldiko lehenak

Maiatzak 1 eta 3 artean ospatuko dira Karpoko jaiak Areatan. Upo Galapan-eko lasterketak, azokea, lehiaketa gastronomikoak, herritarren arteko desafioa, plastikuzko aha-teen lasterketea eta musikea izango dira protagonistak. Gainera, bueltan dira Upo, Topotin eta Bartolina txiki pailazoak. **9. orrialdea**



musikea, kantua, jantzea
uneak sortzeko gunea

igorre
GARBE 23 - 24
673 654 867



Literatura txokoa

LAKIOA

Bederatzi ipuinez osotutako liburua da, *Lakioa*. Josu Goikoetxea gernikarrak idatzia, Joseba Jaka bekaren laguntzeagaz. Giro, gai, estilo eta teknika askotako kontakizunak batu dauz idazleak bere lehenengo narratiba liburuan. Halanda be, hau ez da Goikoetxeak kaleratu dauan lehenengo liburua, 2018an *Zer luzea negu hau* poema bildumea argitara emon eban.

Josu Goikoetxeak urteetan bertso gai-jartzaille jardun izana islatzen da liburuan, esaterako, *Ardo gozoa, ardo garratza* ipuinean, zati handi bat bertsoz osotuta dago-ta.

Ipuin bilduma honetan oso istorio desbardinak kontetan dira: katakume jaiobarriak tragetan be-

hartzten daben gizonarena; ume-tako lagun baten bila joan behar dauan gizonarena; gaueko parranda osteko goizean lagun zahar bategaz egongo dan neskearena; hildako gurasoen eta bere sorlekua izan dan baserrira bueltetan dan gizon droga saltzailearena... Bertan agertzen diran pertsonaiak be euren artean sano desbardinak dira, eta batzuk egoera gat baten dagoz. Halanda be, egileak pertsonaiak errukiz eta maitasunez deskribiduko dauz. Gainera, egilea ez da eurakaz bape zinikoa edo krudela.

Aitatzea merezidu daben beste berezitasun batzuk honeexek dira: ipuinak Bizkaian eta Nafarroan batez be girotuta dagoz, eta auzo eta leku batzuk ezagunak

izango dira batzuentzat. Basoa, osinak, zugatzak eta eraikuntzak dira kontakizunetan errepikatzen diran elementuak. Geografiak garrantzia handia dauka, geografia sinbolikoa eta naturalistea.

Goikoetxeak lakio berbea aukeratu dau bere esangureagaitik, tranpa bat animalia txikiak harra-petako hain zuzen be. Egilearen ustez bere pertsonaiak be lakio emozionalak, iraganekoak edo sorterrikoak daukiez. Batzutan horrek lakioak estu-estuak izan leitekez, eta beste batzutan lasaiagoak, hortik, beraz, izenburua jatorriko.

Gustura irakurteko liburua dogu berau. Ipuin originalak eta interesgarriak dirala nabarmendu beharko geunke, eta iradokitzeko

daukien gaitasuna handia da. Baina, batez be, irakurleengan gehiago irakurteko sortzean dauan gogoia aitatzeko da.

Sano ipuin onen aurrean gogozala esan geinke, eta horregaitik autortu behar dogu ustebako handia izan dala liburu hau. Gure ustez *Lakioa* liburuak sabore ona itxiko deutsu ahoan.

Ane Miren Rilo



Josu Goikoetxea

Lakioa

Elkar, 2025

140 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Apirilaren 13tik 19ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa (11-17). Amorebieta-Etxano.

Apirilaren 20tik 26ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33

Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga (18-24). Amorebieta-Etxano.

Apirilaren 27tik maiatzaren 3ra

Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27

Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez (25-1). Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Cometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Tel.: 94 449 05 87

Medikuak

Arantzazu, Artea, Areatza, Dima,

Igorre eta Zeanuri: 94 600 74 63

Bedia eta Lemoa: 94 600 68 85

Ubide: 945 45 50 17

Zeberio: 94 500 67 95

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17

mankomunitatea@arratia.eus

Gorbeialde Landa

Garapenerako Elkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Gertu bulegoa Igorre 94 406 80 00

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51

kulturetxea@igorre.net

Lemoako Kotxepin Kultur Etxea

kotxepin@lemoa.eus

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa 688 854 543

info@errota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik

22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Atzen zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik

21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara

orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era

orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro.

Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-

Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara

orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-

Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandio: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Ubidetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik

20:45era bi ordu behin. Jaiegunetan: 08:45etik

20:45era bi ordu behin.

*08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urtetan diran

zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara

orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta

08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan

ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00,

16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan:

07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30,

16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan:

07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

A3712 linea. Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: 06:45ean urtetan dau Bilbotik.

Zapatuetan: 08:45ean urtetan dau. Domeka eta

jaiegunetan: 10:30ean urtetan dau.

A3712 linea. Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: 15:15ean urtetan dau Gasteizetik.

Zapatuetan: 16:30ean urtetan dau. Domeka eta

jaiegunetan: 16:30ean urtetan dau.

Eskualdeko garraioa. Erreserbak

945 18 20 60

6A linea. Otxandio-Legutio

Lanegunetan: Ubiden 06:35ean, 07:15ean,

09:20an, 11:20an, 14:45ean, 15:25ean, 17:15ean

eta 20:25ean. Astegoen eta jaiegunetan:

08:45ean, 11:55ean, 16:40an eta 18:40an.

6A linea. Legutio-Otxandio

Lanegunetan: Ubiden 09:05ean, 11:05ean,

14:30ean, 15:10ean, 17:00etan, 20:10ean eta

21:15ean. Astegoen eta jaiegunetan: 10:35ean,

13:40an, 18:25ean eta 21:30ean.

Lotura Gasteiz-Durango 18 lineagaz.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea.

Tel.: 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus.

Zuzendaria eta kudeatzailea: Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:**

inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923.

E-posta: asierabrisketa@begitu.eus. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Ager

Barragan. **Webgunearen arduraduna:** Ager Barragan. **Tel.:** 649 979 112.

E-posta: begitu@begitu.eus. **Maketazinoa:** Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:**

Araitx Zapiko (Dima), Mikel Madrazo (Igorre), Xabier Gorostiaga (Arantzazu, Areatza

eta Artea) Alejandro Konadio (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz

(Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa

inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria, **Instagram:** @begitu.eus,

Mastodon: @begitu, X: @BegituEus **YouTube:** @BegituAldizkaria

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-

eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu

daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatutako lizentziaren*

bitartez (CC-by-sa). Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean

komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza

aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derri gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

ALKARREGAZ

Bediako Eleizalde Jubilatuta eta Pentsionisten Elkartea

Bediako Eleizalde Jubilatuta eta Pentsionisten Elkartea 2004. urtean sortu zan eta gaur egun 135 bazkide gara. Alkartearen helburua gure komunitateko adinekoen arteko topaketak sustatzea da, urtean zehar programatutako jardueren bitartez; esate baterako urtekerak, bisita kulturalak, berbaldiak eta bazkari sozialak.

Gainera, eskualdeko eta probintzia mailako beste alkarte batzuk koordinatuta gure eskaerak (laguntza medikoa, garraioa, arkitektura oztokoak kentzea eta abar...) gobernu organoetara bideratzen doguz, gizartearen eguneroko bizitzaren hainbat alderdi hobetzeko helburuagaz, eta gure komunitateko kide ahulentzako, batez be, gure adineko bizilagunentzako.

ERETXIA

Gazteek arnaguneak behar ditue

Munduko Osasun Erakundearen arabera, 10 eta 19 urte bitarteko zazpi gaztetik batek nahaste mentalen bat dauka, eta depresinoa, ansiedade eta portaera-nahasmentuak dira nerabeen artean ezinegonaren errazoi nagusienetakoak. Errealidade hori Arratian be atzemoten da; horregaitik, behar-beharrezkoa iruditu jakun gazteen osasun mentalaren inguruko hausnarketa partekatua sustatzea, gazteak eurak egindakoa.

Proiektu hau guraso alkar-te, hezkuntza zentron eta mankomunitateko Prebentzio Zerbitzuaren alkarlanari esker gauzatu da, gazteak eurak prozesuaren erdigunean ipiniaz. Guztira, Arratiako 30 gazte parte hartu dabe, Igorreko Kultur Etxean egindako hiru saiotan, euren bizipenak partekatu eta proposamenak lantzeako.

Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza batera aurkeztu zan Arratiako Udalen Mankomunitatea eta jasotako diruagaz Marakako kideek diseinatu eta gidatu dabe gazteen korskuntza proiektu hau.

Hausnarketa prozesu honen emaitza nagusia argia izan da: gazteek espazio seguru eta lasaiak behar ditue, eguneroko presinoetatik deskonektetako eta euren ongizate emozionala zaintzeako. Sare sozialek eta mobikorraren gehiegizko erabilereak, ondoeza honetan dauan eraginaz be badira konziente. Hori dala-ta, 15 urteko gazteek egindako proposamen nagusia hauxe da:

1. Arnagune multifuntzionalen sarea

Gazteek lehentasunezkoztat jo dabe institutuan zehar "arnagune" sare bat sortzea. Badago berez arnagune bat ikaste-

TRANBIA TXIKI GURASO ELKARTEA, ARRATIA BHI ETA MANKOMUNITATEKO PREBENTZIO ZERBITZUA

txean baina beharrezko ikusten dabe holango espazio seguru gehiago egotea. Gune honeek espazio lasai eta seguruak izango leitekez, krisi emozionalak arinduteko eta atsedean hartzeako aukerea eskaintzeko. Ez leitekez lasaituteko lekuak bakarrik izango; bertan, gazteei laguntza zuzena emongo eutsien konfiantzazko profesional baten presentzia be bermatuko leiteke, orientazioa eta babesa emonaz.

Arnaguneak hainbat ezau-garri izango leukez: giro lasaia, sormenerako materialak, irakurketa aukerak eta musika lasaigarria. Funtsezkoa da, halaber, teknologia digitalik bako espazioak izatea, sare sozialen

eta pantailen eragin negatibotik aldentuteko. Holan, gazteek benetako deskonexino unek biziteko aukerea izango leukie, euren ongizate emozionala indartuaz.

2. Ikaslekuak

Bigarren proposamena ikasketak-espazioak sortzea da, gailu elektronikoa bakoak, konzentrazioa hobetuteko eta arretak bizkortuteko. Euren berbetan zailtasunak daukiez ikasteko eta konzentretako. Egoera hau sarritan eten barik teknologikoki konektuta egon beharrenden ondorioa izaten da. Nerabeak ez dira gai ikustent, modu autonomoan euren lanaren kudeaketarako konexino bako gune bat sortzeako. Honetarako laguntzea behar dabela adierazo dabe.

3. Pantailen konzienziainoa barnetegian

Hirugarren proposamena pantaila bako barnetegiak ziurtatzea da eta honeen eragina baloretea, aurrez aurreko hartu-emon presentzialak indartuteko eta erabilera digitalaren inguruko hausnarketea bultzatuteko.

Amaituteko, azpimarratutakoa da irakasle eta gurasoei bereziki deigarria egin jakula gazteek aho batez arnagunearen proposamena lehenes-tea. Honek agerian ixten dau gazteek benetan behar dabena dala entzunak izatea eta euren ongizate emozionala zaintzeako espazio errealek eukitea. Oindino egun, gai honeen inguruan publikoki berba egiteko doguzan zailtasunak kontuan hartuta, ikasleak behar hau adierazoteko ausardia izan badabe, ikas komunitateak, ahal dauan neurrian, erantzun bat emon beharko leuskio, ezta?

Prozesuan hausnartu eta sortutakoaren gainean berba egiteko aukerea egongo da gazteak batera apirilaren 29an, Igorreko Kultur Etxean, arrastiko 19:00etan.

Gazteen beharrak ulertu eta horreei erantzuteko sasoia da.



LUMATUTEN



GONTZAL MENDIBIL

Iparragirre
eta Gernikako
arbola

Jorrailaren edo apirilaren 6an bete dira Iparragirre hil zaneko 145 urte. Eta gogorapenak besterik ez daukadaz, Zeanuriko Undurraga auzoan 1992. urtean aurkeztu genduan *Iparragirre Hegalaria* antzezpen musikaz. Herritar guztion partehartzeagaz eskainitako lan parebakoa eta arratiarontzat historiako geratuko jakuna.

Halangorik egitea behar bada gaur egun ez da erraza. Eta halanda be, betirako geratu jakuz Iparragirrerren kantuak eta ibilerak. Eta historiara begiratzuz, inork batzean badauz idea asko eta zabaletariko gurariak eta pentsakerak, hori Iparragirre dogu. Jakina, berak sortutako kantuen artean, aitagarria eta esanguratsua *Gernikako arbola*.

Erbestetik etorrita lasterrera, Urkiolan kantau eban, milaka

personen aurrean 1854. urteko sanantonioetan, besteak beste, bere eta gure kantu mitikoa; gaur egun, herritar askok ererkerki edo himnotzat hartzean doguna.

Batetik, gure iragana, oraina eta etorkizuna baturik, Zazpiak bat lurraldearen batasuna eskaintzen deuskulako eta joera politiko guztiak batzean dituelako. Askatasun zugatzen ordezkaria dogun neurrian, munduko maitasuna eta anaitasuna dalako bere eskaria. Eta honezaz gainera, gerrearen eta mehatxu totalitarioaren kontrakoa, bakearen, internazionalismoaren eta antifaxismoaren munduko ikonoa dogu.

Esan beharrik ez dago, harribitxi itzela dogula, transbersala, epikaz jantzia, gizatasunez, historiak eta etorkizunez betea. Berau bultzatu asmoz, datorren apirilaren 18an, Urkiolan, bazter guztietako euskaldunak, euskal herritarrak, bildu gura doguz. Alkarregaz abestuko dogu, eta emon beharreko pausuak ebatzi.

Munduko nazino gehienak baino lehenago, Euskal Herriak, Baskoniak, ereserki nazional bikaina aukeratu eban. Eta ez, ez gagoz elementu unitarioz gainezka hori oharkabean pasetan ixteko. Iparragirrek lehen aldiz kantau eban *Gernikako arbolagaz* bat egite-ra kobidautu zagozie.

ZERTZEAN



MARTI JAUNARENA

Amazulo



BEGI TXINDORRA

54 urteren ostean, gizakiok barriro hurreratu gara Ilargira. NASAREN Artemis II misinoak Orion espaziontzia eta lau astronauta -Christina Koch, Reid Wiseman, Victor Glover eta Jeremy Hansen- gizakia inoiz baino urrunago eroan dauz, Lurretik 406.771 kilometrotara. Pentsau daiteke ez dala hainbesterako bez; kotxe askok egiten dabe distantzia hori-ta. Orion espaziontzia egin dauan bakarra, Ilargia errotonda moduan erabili eta buelta egitea izan da, Lurreko atmosfera orduko 40.000 kilometrotara kurutzatu eta itsasoan jausteko. Baina askoz gehiago izan da. 2027an beste espedizino bat egingo da, Artemis III, Orion Ilargira bajatu eta barriro aireratu ahal dala ziurtatuteko eta 2028an bai, dana ondo badoa, gizakiok Ilargia zapalduko dogu barriro. Atzen helburua zera da, Ilargian base bat eregi, Marterako bidaia erraztuteko. Dirua eta lehengaiak botatea dirala esango dabe batzuk, baina gizakiok gure ingurua ulertuteko beharizana dogu; zientzia egin, hurrengoak hezi, aukerak emon.



Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa
hagin klinikak

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Ikerjatoru Zerbitzuak 900
R.P.S. 21/06

IGORRE

Kiñu Gaztetxea hamabigarren urteurreneko ospakizunetan murgilduta

Aprileko bigarren hamabostaldirako umorezko bakarriketea, pailazo ikuskizuna eta jai nagusia dagoz antolatuta.

Asier Abrisketa

Hamabi urte bete dira Kiñu Gaztetxeak ateak zabaltu ebazantetik eta urtero lez, hau ospatutako egitaraua antolatu dabe. Jai nagusia aprilaren 25ean egingo da Igorreko Kintoen Egunagaz batera, baina april osoan zehar luzatuko da ospakizuna. Asanbladakideek BEGITUN azaldu dabenez indarrezko kaleratzea saihestuteko Sabadell Bankuagaz negoziazioak aurrera doaz eta hurbildutako "frututxoren bat" bat emon dau; halanda be, onartu dabe alde bakotxaren eskakizunak urrun mantendutena dirala. April amaierara arte daukie akordio batera heltzeako, bestela, epaiketea egongo da barriro.

Lehenengo hamabostaldian bertsoak eta poesia buztartu eta Olaia Inziarte zein Indigoren kontzertuak gozatu ostean, bigarren txanpan sartzean da urteurreneko egitaraua. Aprilaren 17an Manex Astigarraga umoregileagaz barre egiteko aukerea egongo da. Aprilaren 24an barriz, txikerrenentzako ikuskizuna eskainiko dabe Upo, Topotin eta Bartolina txiki pailazoek eta hurrengo egunean, hilak 25, izango da urteurreneko jai nagusia. Goizez azokea eta herri kirolak, eguerdian bazkaria



Gauetz kontzertuak egongo dira gaztetxean.

eta gauetz kontzertuak egongo dira; arrastiz, Kintoen Eguneko egitaraua batzeako deia egin dabe. Bazkarirako txartelak 10 eurotan dagoz salgai Axularren eta Kukuman.

Aprilak 17, barikua
20:00etan, Manex Astigarragaren umorezko bakarriketea.

Aprilak 24, barikua
19:00etan, Upo, Topotin eta Bar-

tolina txiki pailazoen *Tronpeta magikoa* ikuskizuna.

Aprilak 25, zapatua
11:00etan, herri kirol erakustaldia eta sortzaileen azokea. Garbeko aparkalekuan.
15:00etan, bazkaria. Kiñun.
Arrastian, Kintoen Eguneko egitaraua.
21:00etan, Ezta Ilen, Gailu eta Nize taldeen kontzertuak.
Gero, DJ Agata Lagata.

ZEBERIO

Aprilaren 18an ospatuko da Zeberioako Gazte Eguna

Bertso-bazkaria, elektrotxarangea eta kontzertuak antolatu dauz Zeberioako Gazte Elkarteak.

Asier Abrisketa

Gazte zeberioztarrek laugarrenez antolatu dabe Zeberioako Gazte Eguna, aprilaren 18rako. Ohikoa danez, bazkaria, txarangea eta gaueko kontzertuek osotuten dabe egitaraua. Aurtengoan, barrikuntzea bazkarian egongo da, hau bertsolari gazteek girotuta egongo da-ta. Holan, Peio Molinuevo eta Maider Altuna arrigorriagarra, Ekhi Zuluaga igorretarra eta Aiala Iruiria arantzazuarra egongo dira kantetan. Bazkarirako txartelak 15 euro balio dabez eta 687 716 326 telefonoan emon

daiteke izena. Gero, 19:00etatik aurrera, Orkestra Elektrotunak hartuko dau poteoa girotuteko ardua.

Gauetz barriz, 22:00etatik aurrera, kontzertuak egongo dira plazako aterpean, doban. Oholtzara musika elektronikoa eta *autotune*-a buztartuten dauzan Euskoprincess abeslari hernaniarra; blues, rock eta soul doinuak jotzen dauzan Boogie Riders talde arrigorriagarra; Gose ta Sue musika jartzaile arratiar bikotea; eta Malaga, Bilbo, Laudio eta Orozkoko lau lagunek osotutako post-punk inguruko Barrk taldea egongo dira.



Barrk taldea.

bertsolariakaz eta Amorante musikariagaz. Kultur Etxean.

Aprilak 23, eguena
19:00etan, Xabier Berasaluze "Leturia"-ren *Koplarik kopl*a kontzertua. Kultur Etxean.

Aprilak 24, barikua
19:00etan, Ane Ablanedoren

Zapalduen pedagogia eta *Heziketa librea* liburuen aurkezpena. Kultur Etxean.

Aprilak 29, eguaztena
19:00etan, Karmelo Uriarte liburuen egileak Xabier Amurizagaz *Ederriko. Kontau behar dot* liburuen aurkezpena. Kultur Etxean.



Karmelo Uriarte eta Xabier Amuriza.

ZEANURI

Udabarria Loran ekimenaren atzen ekintzak Zeanurin

Bertso-saioa literarioa, Leturiaren kontzertua eta hiru liburu aurkezpen egingo dira asteotan.

Asier Abrisketa

Zeanuriko Udalak literatur eta kultur zaletasuna bultzatutako antolatutuen dauan Udabarria Loran ekimena bere atzen txanpan sartu da. Martian zehar egindako jarduerak amaituta, beste bost hitzordu dagoz antolatuta aprilaren bigarren hamabostaldirako. Liburu aurkezpenak izango dira nagusi, baina badagoz bestelangoak be. Berbarako, Esne Berritan

bertso-saio literarioa Uxue Alberdi, Nerea Ibarzabal, Aissa Intxausti eta Amorangaz; edo Xabier Berasaluze "Leturia" *Koplarik kopl*a abesti bildumea aurkeztuten.

Liburu aurkezpenetan gainera, berbagai sano desbardinak egongo dira. Urtzi Ugaldek minbiziaren gainean egingo dau berba, Ane Ablanedok pedagogia eta heziketa kontuak ipiniko ditu mahaigainean eta Karmelo Uriarte eta Xa-

bier Amurizak barriz, Karmelo Uriarte zeanuriztarraren bizi-tzako pasarteak kontetan dauzan liburu aurkeztuko dabe.

Aprilak 16, eguena
19:00etan, Urtzi Ugalderen *AMA* libururaren aurkezpena. Kultur Etxean.

Aprilak 17, barikua
19:00etan, Esne Berritan bertso-saio literarioa Uxue Alberdi, Nerea Ibarzabal eta Aissa Intxausti

ARRATIA, ZEBERIO

Arratia eta Tarragonako musika ikasleak alkarlanean

Aprilaren 18an Ailarak-Musiktopako lehenengo emonaldi irekia egingo dabe musikari gazteek euskal musika tresna tradizionalak erabilita.

Asier Abrisketa

Pasau dan urtean, Arratiako Musika Eskolako irakasle eta ikasleak Tarragonan egon ziran Escola Municipal de Música de Tarragonagaz antolatutako alkartrukean. Aurtengoan barriz, katalanak izango dira gurera etorriko diranak. Aprilaren 17tik 19ra egongo dira Tarragonako eta Arratiako musikari gazteak batera eta emonaldi bi eskainiko ditue.

Aprilaren 17an Arratia eta inguruak bisitetan egongo dira eskola bietako kideak eta datorren egunean, zapatua, kontzertu bateratua eskainiko dabe Igoerreko Lasarte Aretoan, 18:30ean. Domekan oster, 12:00etan, Ailarak-Musiktopa zentroan -lehenagoko Ekomuseoa- lehenengo emonaldi irekia egingo da. Eguzkilore kontzertuaren bigarren edizioa izango da eta euskal musika tresna tradizionalak entzuteko aukerea egongo da: albokea, txistua, trikitixea,



Arratiako Musika Eskolako ikasleak igaz Tarragonan.

panderoa eta txalapartea. Doinuak lagunduteko, kantuak eta jantzak be egingo dabez, atzen honeek Gangorri Dantza Taldeko jantzarrien eskutik.

Arratiako musikea Kafe Antzokian

Aprilaren 21etik 23ra, Bilboko Kafe Antzokian Kurkuluxetan alkarreak antolatutako XXV.

Musika Topaketak ospatuko dira eta arratiar musikari gazteak bertan egongo dira. Lehenengo egunean, martitzena, Arratiako eta Arrankudiagako musika eskolek eskainiko dabe kontzertua, 18:00etan. Hurrengo egunean oster, hilak 22, Eingo Eskolako ikasleek egingo dabe emonaldia, Perkussion Konfussion taldeagaz batera.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Errenta aitortpena euskeraz egitera animau dau UEMAK

Aprilaren 15etik bagilaren 30era arte egongo da zabalik aitortpena egiteko aukerea.

Asier Abrisketa

2025. ekitaldiko Persona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) aitortpena aurkeztuteko kanpaina hasita dago daborduko. Atzen urteetan egin dan modura, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA), kide diran udalakaz eta foru ogasunakaz alkarlanean, errenta aitortpena euskeraz egiteko kanpaina abiatu dabe.

Urtero-urtero, errentea euskeraz egiten daben herritarren kopurua gora doa baina oindino, errealidade soziolinguistikotik urrun dagoz zenbatekoak. Gipuzkoarrak dira errenta aitortpena euskeraz gehien egiten dabenak eta Bizkaian, datuak apalagoak dira. Amoroto, Mendexa eta Aulesti udalerririk dira % 20ko lan-gea gaitututen daben bakarrak.

Holan, UEMATik gogorarazo dabe aitortpena egin zein za-



lantzak argituterakoan, internet, telefonoz, banketxean zein aurrez aurre, herritarrek euskeraz egiteko eskubidea daukiela eta horretarako aukerak dagozala. Kasu guztietan, aitortpena egin zein agiriak jasoterakoan, euskerea lehenetsi gura dala adierazo behar da eta zitak eskatuterako orduan, euskeraz egin gura dala alde aurretik komuniketea gomendatzen da.

ARTEA

Alberto Intxaurreagak Arteako alkatetzera itxi dau

Arteako UBBk behin-betiko alkate izango dana aukeratu aurretik, Ainare Sanchezek hartuko dau honen lekukoa.

Asier Abrisketa

Alberto Intxaurreaga EAJ-PNV alderdiko Arteako alkateak aprilaren 10eko Ezohiko Osoko Bilkuran iragarri eban alkatetzera itxiko ebaia. Honen lekua, behin-behinean, Ainare Sanchez zinegotzi jeltzaleak hartuko dau. EAJK prentsa-ohar baten bitartez adierazo eban, "Arteako Udalak garai barri bateri ekingo deutso alkatetzearen erreleboagaz". Azaldu dabenez, arrazoi profesionalak dagoz Intxaurreagaren ebatziaren atzean baina ez da atzen momentuko erabakia, izan be, "agintaldiko mugarrri nagusienetakoa bete ostean, Ailarak-Musiktopa zentro barria abian jarri ostean", egin dabe publiko alkatearen ebatzia.

57 urteko Alberto Intxaurreaga

zortzi urtez zinegotzi izan ostean heldu zan alkatetzera eta bertan emon ditu atzen zazpi urteak. Oin, Ainare Sanchezek hartuko dau honen lekukoa; 52 urte ditu eta irakaslea da. Behin-behinean hartuko dau kargua, izan be, Arteako Uri Buru Bartzarrak agintaldia amaituteko



Leixuri Arrizabalaga, Alberto Intxaurreaga, Elixabete Etxanobe eta Ainare Sanchez, Ailarak-Musiktoparen inaugurazioan.

alkate-kargua hartzeako beteko dauan personea izentauko dau laster: "Persona horrek Artea personengan, bizi-kalidatean eta bizi-proiektuen garapenean oinarritutako udalerrri hobe bihurtuteko aurreikusitako ekimenak beteten jarraituko dau", adierazo dabe EAJtik.

IGORRE

Igorreko kintoek aprilaren 25ean daukie zitea



Asier Abrisketa

Urtero-urtero batzean da Igoerre, urtean behin, kinta bereko jentea bazkari bat egiteko baina pasau dan urtera arte, kuadrilla bakotzak bere aldetik antolatuten eban kintadea. Pasau dan urtean baina, danak egun berean batzeako ekimena urten zan eta izan eban arrakastea ikusita, aurten be egin da belau-naldi guztiek Kinto Eguna egun berean ospatuteko deialdia. Aprilaren 25ean egingo da hau eta bazkariez gainera, eguna girotuteko hainbat jarduera antolatu dira.

Goizez, 11:00etatik aurrera,

azokea egingo da eta bitartean, kintoak hurbildu eta bertan argazkia aterateko photocall-a egongo da. Azoka gunetik, 12:00etan, Ardoa Barrure fanfarrea urtengo da herritik zehar 15:00etara arte ibilteko eta arrastian be urtengo dira, 18:00etatik 20:00etara arte. Horrezaz gainera, 20:30ean, Gauargi erromeria taldeak kontzertua eskainiko dau, Elexalde kalean ipiniko dan oholtzan. Beste alde batetik, Kiñu Gaztearearen hamabigarren urteurrena be egun berean ospatuko da eta 21:00etatik aurrera, Ezta llen, Gailu, Nize taldeak eta DJ Agata Lagata egongo dira gaztetxean.

LEMOA

Esther Iturrioz izango da Udal Hauteskundeetako EAJren zerrendaburu

Lemoako Uri Buru Batzar jeltzaleak aho batez aukeratuta, gaur egun Lemoako alkatea dan Esther Iturrioz Rementeria (Lemoa, 1967) barriro be izango da EAJ-PNVren alkategaia datorren urteko Udal Hauteskundeetan.



ahalduna da Iturrioz eta Kultura, Euskara, Kirolak, Ingurune Naturala eta Nekazaritza eta Ekonomiaren Sustapen batzordeetan hartzean dau parte.

Alkateari mehatxuak

Aprilaren 1ean "alcaldesa estas muerta" -alkate hilda zagoz- inoan pintaketea agertu zan Lemoako Agarre auzoan, RIP, kurutzeak eta ataute battegaz batera. Gertatutakoaren aurrean, EAJk Iturriozeri alkartasuna adierazo eta pintaketak salatu ebazan; holango ekintzek gizarte demokratiko baten lekurik ez dabela azpimarratuaz. Lemoako EH Bilduk be salatu ebazan mehatxuak, "lemoaztar eta euskal gizartearen gehien-goak aldarrikatuten dauzan alkarbizitza demokratikoaren aurkakoak" diralakoan.

Alderdi biek, komunikadu bateratua be argitaratu eben egun berean, Lemoa "zabal eta pluralaren" aldeko Udalaren konpromisoa agertuaz.

Asier Abrisketa

EAJk zabalduetako komunikadua dinoanez, helburuak herriaren "eraldaketa prozesua burutzea" eta "Lemoari pultsua bueltetea" dira. Horretarako eguneroko lanari ekiteko asmoa agertu dau Iturriozek: "Beste herri bat gura dogu, non herritar guztiak lehen mailako lemoaztar izan eta sentiduko garen".

Iturriozek ibilbide luzea dauka Lemoako udaletxean. 1999tik izan da zinegotzi, agintaldi bi Udal Gobernuan eta beste bi oposizioan egin ostean heldu zan alkatezara 2023. urtean. Gainera, 24 urtez egin dau lan Lemoako ikastetxean. Holan, "herrikideengandik oso hurbil" sentiduten dala adierazo dau. Udaletxean bakarrik ez, Bizkaiko Batzar Nagusietako

DIMA

Dimak udaleku eskaintza zabaldu dau udarako, barrikuntzakaz

2008 eta 2021 urteen artean jaiotakoek aprilaren 27tik maiatzaren 8ra arte emon leikie izena udaleku itxi, ireki zein ibiltarian.

Asier Abrisketa

Dimako Udalak 2026ko udaleku eskaintzea aurkeztu dau, eta aurten be hainbat aukera egongo dira, adinaren arabera banatuta. Betiko lez, udaleku ireki, itxi eta ibiltariak egongo dira baina barrikuntza moduan, udaleku irekien bigarren txanda bat egingo da uda amaieran. Izen-emotea aprilaren 27tik maiatzaren 8ra egongo da zabalik

Udaleku irekiak Diman egingo dira, goizez, 2013 eta 2021 artean jaiotakoentzat. Txanda bi egongo dira: bagilaren 29tik garagarri-laren 3ra lehenengoa, eta barrikuntza lez, bigarrena abuztuaren 31tik urri lehenengoaren 4ra.

Bestetik, udaleku itxiak Oñatin izango dira, garagarri-laren 6tik 10era, 2008 eta 2021 artean jaiotakoentzat. Horrezaz gainera, udaleku ibiltariak be prestatu

dabez, Berriatua, Ondarroa eta Lekeitio artean. 2008 eta 2013 artean jaiotako gazteei zuzenduta, garagarri-laren 13tik 17ra egingo dira.



ERRROTA

ARRATIAKO GARAPENERANTZA

Biherko Arratia: etorkizuna alkarregaz eregiteko hitzordua

Errota Fundazioa

Aprilaren 22an, arrastiko 18:30ean, Igorreko Kultur Etxean, Biherko Arratia Plan Estrategikoaren aurkezpen saioa egingo da.

2025ean, Arratiako udalak, hezkuntza arloko eragileak, Gorbeialde Landa Garapen alkartea eta Errota Fundazioaren patronatua eta langileak alkar-lanean ibili gara Arratiaren biherko erronkak eta aukerak aztertzen. Lanketa parte-hartzaile horren emaitza da Biherko Arratia, bailararentzat datozan urteetarako ikuspegi partekatua eta lehenetsunak zehazten dituan plana.

Hasikeratik helburua argia izan da: arratiarentzat datozan hamabost urteetarako norabidea adostea, erronka nagusiak identifiketea eta danon artean partekatutako ikuspegia eregitea. Ez da dokumentu tekniko hutsa; eragile desbardinaren artean egindako hausnarketa kolektiboaren emaitza da, eta etorkizunari begira hartutako konpromiso bateratua.

Aurkezpen saioan prozesuaren nondik norakoak azalduko dira, zehaztutako erronkak partekatuko dira eta 2040ra begira landuko diran bost proiektu estrategikoak aurkeztuko dira. Baina, horrezaz gainera, ekitaldiak badauka beste helburu garrantzitsu bat be: hemendik aurrerako bidea alkar-lanean egiteko beharra azpimarratzea.

Saioa irekia izango da eta arratiar guztiei zuzenduta dago. Izan be, 2040an gura dogun Arratia danon esku dago. Oin arte parte hartu dogun eragileen lana erakusteaz gain, herritarrak be proiektu honen parte izatera konbidau gura doguz.

Horregatik, aprilaren 22an Igorrera hurreratzera animau gura zaituegu, etorkizuna alkarregaz eregiteko helburuagaz.

Etorri, entzun, partekatu eta izan Biherko Arratiaren parte.



AREATZA

Bolibar eraikinak 100 urte

Aprilaren 18an beteko dira ehun urte Bolibar eraikina inauguratu zenetik, eta hori gogoratzeko hainbat ekintza antolatu ditu Areatzako Udalak.

Erredakzioa

Aprilaren 17an, barikua, goizeko 09:00etatik 14:00etara erakusketea egongo da. Pleno aretoan egongo da ikusgai Bolibar Fundazioaren gaineko erakusketea, argazkien proiektinoagaz batera, eta agiri originalak be ikusteko aukerea egongo da.

Aprilaren 18an, zapatua, ospakizun nagusia egingo da: 12:00etan alkatearen ondoetorria izango da, eta jarraian Joserra Ipiñazarren aurkezpena, *Bolibar eraikinaren 100. ur-*

teurrena. Herriaren zerbitzura dagoen ondarea. Ekitaldia lora sorta eskaintzeagaz, Agurragaz eta Nerea Zuloagak abestuko dauan kantuagaz osotuko da; ostean, kopaua egongo da hurreratzeko diranentzat.

Zuztar sakonak Areatzan

Bolibar eraikinaren sorrera Bartolome Bolibar Añibarroren legaduari lotuta dago, baina haren historia askoz lehenagotik dator. Bolibar familia Areatzan errotuta egon da gitxienez 1600. era arte, eta abizena bera be he-

rriko toponimian eta uribilduaren sortze-agirietan agertzen da.

Familia hau sarri agertu izan da Areatzako historian, maiorazgo handien jaube moduan, eta beste familia poderetsu batzukaz senidetuta, besteak beste Garai, Castaños edo abendañotarrakaz. Ondare horrek gatazka judizialak be ekarri ebazan: Bartolomeren aitita, Bartolome Bolibar Castaños, eta bere aita Hilarion Bolibar Castaños auzietan ibili ziran 1774an eta 1805ean, jaubegoen inguruan.



Ibilbide politiko eta soziala

Bartolome Bolibar Añibarro 1844an jaio zan Areatzan. Madrilen ikasi eban Zuzenbide Zibila eta Kanonikoa, eta ondoren herriko bizitza politikoan parte hartu eban. III. Gerra Karlistan zinegotzi izan zan, eta gerra amaitu ostean, 1876an, alkateorde izentau eban gobernadoreak.

Liberalakaz hartu-emonak estututa, 1881ean diputadu probintzial aukeratu eban, eta 1885ean kolera izurritearen kontrako burrukan Arratiako barrutirako ordezkari izentau eban. 1886an Bizkaiko Foru Aldundiko diputadu izan zan, Pablo Alzolare presidentaldian, eta sasoi horretan sinatu zan kontzertu ekonomikoaren barrizatzea, Bizkaiko azpiegituren garapena bultzatuz (errepideak, eskolak...).

Beste korporazio batzuetan be parte hartu eban, Manuel Goyarrola eta Enrique Arestiren alboan, eta Aldundiko kide moduan Trianoko trenbidearen kontseilaria izan zan. Tren horrek garrantzia ekonomiko handia izan eban: 1889an Aldundiaren diru-sarreraren % 22 suposatzen eban, eta meatzaritza ez ezik, bidaiarien garraioa be bultzatu eban, eskualdeko bizimodua eraldatuaz.

Herriagaz lotura estua

Kargu publikoak izan arren, Bolibarrek ez eban inoz galdu Areatzagazko loturea. Maileguak egin eutsazan Udalarri, eta hainbat gairen inguruan aholkulari moduan jardun eban: gerrako zorren ordainketarako lur salmentak, Orozkogaz izandako auziak edo hiltegi barriaren kokapena, besteak beste.

Kultur arloan be parte hartu eban, 1897ko Areatzako Lore Joko-Fiestas Euscarasen antolakuntzan, Madame d'Abbadieren ordezkariagaz batera.

Legadua: herriarentzako ondarea

1923an hil zan, maiorazgoaren atzen jaubea izanik. Hil au-

rretik, bere ondasun guztiak emon ebazan —sasoi haretan 1,2 milioi pezeta inguru—, eta diru hori Areatza eta Zeanuriko pobrentzako eta parrokieta bideratu zan, baita Bolibar eta Añibarro senideentzat be. Gainerakoa Asilo de Bolibar Fundazioa sortzeako erabili zan.

Fundazioaren gidaritza herriko bost kidek osotutako patronatuaren esku geratu zan: alkatea, medikua, abadea, epailea eta notarioa. Helburua argia zan: eraikin bat sortzea inguruko behartsuei babesa emoteko eta herriko umeei oinarritzko hezkuntza doban eskaintzeko.

Mende bateko ibilbidea

Bolibar eraikina 1926an inauguratu zan, eta ordutik hainbat funtzino izan ditu. Hasikeran eskolea eta egoitza izan zan 1971ra arte; geroago, 2008ra arte, Bolibar egoitza moduan erabili zan, Caja de Ahorros Vizcainaren eskutik. Gaur egun, barriro, herriko eskolea da.

Mendeurrenaren harira, Areatzako herriak ospakizun xume bat egingo dau, Bartolome Bolibarrerri, bere arreba Gregoriari, patronatuko kideei, langileei eta proiektua posible egin daberen guztiei esker emoteko. Izan be, Bolibar eraikina hasikeratik gaur arte herriaren zerbitzura egon dan ondarea da.

**Kultur arloan
be parte hartu
eban, 1897ko
Areatzako Lore
Joko-Fiestas
Euscarasen
antolakuntzan**

BEGITU

**IPINI
ZURE
IRAGARKIA
BEGITUN**

● 649 979 115 ●

inigoirua@begitu.eus

AREATZA

Karpoko jaiak, denporaldiko lehenengoak

Maiatzaren 1etik 3ra ospatuko dira Areatzako Karpoko jaiak kirol, lehiaketa gastronomiko, azoka, musika eta umeentzako ekintza artean.



Asier Abrisketa

Heldu dira lehenengo beroak eta honekaz batera, hastear dago auzo eta herrietako jaien denporaldia. Lehenengo jai garrantzitsua maiatzeko lehenengo aste-goienean ospatuko da, Karpoko jaiak, Areatza osoa girotuko daben arren. Modu berezian hasiko dira jaiak, txupina Upo gauez igon eta bajatuko dauan Gautxori lasterketea hasteagaz batera botako da-ta, maiatzaren 1ean 21:30ean.

Egun nagusia barriz zapatua izango da, hilak 2. Goizez, Upo Galapan 15K lasterketea jokatu da eta bitartean, billaroztarrak Paella eta Gisadu Lehiaketarako prestatuten hasiko dira. Horrezaz gainera, goiz osoan zehar Ganadu, Artisau eta Ekoizleen Azokea egingo da plazan.

Bazkalostean barriz, tradi-

zinoa bihurtu dan plastikuzko ahate lasterketea egingo da errekan eta hau amaituta, herriko talde misto bik giza proba desafioa jokatu da. Geroko poteoa Orkresta Elektrotuna taldeak girotuko dau. Domekan ostera, umeak izango dira protagonista; jantzaldia eta pailazo ikuskizuna dagoz antolatuta.

Behi bako azokea

Aurten ez da behirik egongo Euskal Autonomia Erkidegoko herrietako azoketan eta horren arrazoiak da Eusko Jaurilaritza eta foru aldundiek ezarritako debekua. Neurri prebentiboa da, Dermatosi Nodular Kutsakorra (DNK) gaixotasun birikoa atzeman dalako; gatx horrek behi-aziendeari eragiten deutso.

Maiatzak 1, barikua

21:30ean, Upo Galapan Gautxori mendi lasterketea.

Maiatzak 2, zapatua

Paella eta Gisadu Lehiaketak errekan pasean.

09:30ean, Upo Galapan 15K mendi lasterketea.

10:00etatik 13:30era, Ganadu, Artisau eta Ekoizle Azokea.

12:30ean, Areatzako Bandaren kontzertua Arratiako Musika Eskolako ikasleakaz batera. Eskolako aterpean.

14:00etan, Paella eta Gisadu Lehiaketen aurkezpena.

15:00eta, bazkari herrikoa.

17:00etan, plastikuzko ahate lasterketea. Errekan.

18:30ean, Giza proba desafioa. Goikokalen.

20:00etan, Orkresta Elektrotuna.

Maiatzak 3, domekea

11:30ean, Areatzako ume jantziaren emonaldia. Plazan.

12:30ean, Upo, Topotin eta Bartolina txikiren *Tronpeta magikoa* ikuskizuna. Plazan.

ARRATIA, ZEBERIO

6. mailako ikasleen topaketak antolatu dauz Arratiako Guraso Elkarteak

Institutura saltu egin aurretik, Arratia eta Zeberioko ikasleak alkar ezetuteko ekimena Zaztaparrak-ek dinamizauko dau.

Asier Abrisketa

Areatza, Artea, Dima, Igorre, Lemoa, Zeanuri eta Zeberioko eskoletako LH 6. mailako 124 ikasleentako gehienak Igorreko Arratia BHI zein Lemoako Eguzkitza Meabe institutura joango dira datorren ikasturtean. Holan, eskoletako guraso elkarteek Alkar Ezetuz hiru eguneko topaketea antolatu dabe, uda ostean DBH 1. mailako klasekideak

izango diran gaztetxoak alkar ezetuten hasteko helburuagaz. Aprilaren 24an, maiatzaren 10ean eta 23an egingo dira bateratutako ekintzak eta izena <https://labur.eus/nb5wud3d> helbidean emon daiteke, egunez egun.

Apirilaren 24an, barikua, 17:00etan izango da lehenengo hitzordua Igorreko institutuan. Bertan, lehenengo kontaktua egiteko ezagutza jolasak egingo ditue eta gero, Zaztaparrak Asti

Taldekoek antolatutako ginkana egingo dabe herritik. Bigarren hitzordua maiatzaren 10ean, domekea, egingo da; 10:00etan Igorreko institutuan alkatu eta oinez joango dira Dimaraino, bertan bazkalduteko aukereagaz. Atzen eguna maiatzaren 23a izango da, zapatua, eta egun osoko txangoa egingo da; 10:00etan Lemoan tren hartuta, Mundakako hondartzara joango dira parte hartzaileak.

ARRATIA

Nagusien esperientziak ezetuteko tertuliak antolatu dabez DBH 3. mailako ikasleek

40 urtetik gorako personak topetan dabiz, aprilaren 20 eta 27an Arratia BHIren ekimenean parte hartzeako.

Asier Abrisketa

Arratia BHIko DBH 3. mailako ikasleek Arratiako Udalen Mankomunitatearen ekimena dan Belaunaldien Arteko Denboraren Bankura jo dabe, gazte eta nagusien arteko tertuliak antolatuteko helburuagaz. Oin, alkarlanean ipini dabe martxan ekimena. Aprilaren 20an eta 27an egingo dira saioak, 13:20tik 14:15era eta bertan parte hartzeako 40 urtetik gorako profil desbardinetako 25 persona dabiz topetan. Interesa izan ezker, 688 766 302 telefonoan edo denboraren-bankua@arratia.eus helbidean emon daiteke izena.

Denboraren Bankuko antolatzaileek BEGITUN azaldu dabe-nez, ikasleek hainbat galdera eroango dabez prestatuta eta taldeka antolatuko dira. Holan, helduek minutu batzuk izango dabez galderak erantzuteko eta gero, hurrengo taldera egingo dabe saltu, gazteek profil guztien esperientziak entzutea da helburua. Beti be izena emoten daben persona kopuru eta profil desbardinaren arabera, landuko diran gaiak lan esparrukoak, ohitura aldaketen ingurukoak eta bizimoduaren gainekoak izango dira. Gero, diagnostiko bat egingo dabe institutukoek, gazteek bueltan zer emon leikien baloretako.



ARTEA/DIMA

Merkaduak egingo dira Artea eta Diman

Asier Abrisketa

Artean, hilaren 19an, postuak 10:00etatik 14:00etara egingo dira zabalik eta plazea inoz baino gehiago beteko da. Normalean askoz jota doena bat postu egoten dan arren, oingoan hamazortzi izango dira. Pasta ekologikoa, garagardoa, pate, gaztaia, gildak, ogia, gozoak, txorizoak, saltsak, eskulanak, boltsa eta motxilak, bitxiak, egur-lanak eta jaiobarrientzako erropea egingo dira salgai. Gainera, 12:00etan Ailarak-Musiktopako lehen kontzertua egingo da, euskal musika tresna tradizionalak

erabilia; Arratiako Musika Eskola eta Tarragonako musika ikasleen eskutik, Gangorri taldekoen jantzaldi eta guzti.

Diman barriz, BEGITUK erre-dakzinoa zarratu dauanerako dana zehaztuta egon ez dan arren, postuak 11:00etan zabalduko dira hilaren 25ean, zapatua. 25 artisau, 15 ekoizle eta ganadu postuak egingo dira. Behorak, ardiak eta ahuntzak espero dira baina ez da behirik egingo. Horren arrazoa da Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek ezarritako debekua. Neurri prebentiboa da, Dermatosi Nodular Kutsakorra (DNK) gaixotasun birikoa atzeman



dalako; gatx horrek behi-azien-deari eragiten deuto.

Horrezaz gainera, maiatzaren 2an, Areatzako Karpoko

jaietako be egingo da (ikus zehaztasunak 9. orrialdean).

BEGITU



Maiatzak 1, barikua

21:30 Upo Galapan Gautxori mendi lasterketa.

Maiatzak 2, zapatua

Paella eta Gisadu Lehiaketak erreko pasean.

09:30 Upo Galapan 15K mendi lasterketa.

10:00-13:30 Ganadu, Artisau eta Ekoizle Azokea.

12:30 Areatzako Bandaren kontzertua Arratiako Musika Eskolako ikasleak batera. Eskolako aterpean.

13:30 Azokearen amaiera.

14:00 Paella eta Gisadu Lehiaketen aurkezpena.

15:00 Bazkari herrikoa.

17:00 Plastikuzko ahate lasterketa errean.

18:30 Giza proba desafia Goikokalen. Herritarren talde misto bi alkarren kontra.

20:00 Orkresta Elektrotuna herrian zehar.

Maiatzak 3, domeka

11:30 Areatzako ume jantzarien emonaldia. Plazan.

12:30 Upo, Topotin eta Bartolina txikiren Tronpeta magikoa ikuskizuna. Plazan.

bbk e





- **LAN PUBLIKOAK**
- **UR ETA SANEAMENTU SAREAK**
- **BASERRI ETA BASOKO BIDEAK**
- **PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK**



94 631 72 57



ekin@ekinsl.eus



Igorre (Bizkaia)

HERRIKO BENTA

Hamargarren urteurrena ospatuko dau Arteako Herriko Bentak

Udalaren eraikina lehiaketa publikora urtengo dala-ta, proiektuaren etorkizunagaitik arduratuta agertu dira Herriko Bentako kideak; eraikinak “balio soziala” izaten jarraitutea gura dabe, “eta ez turismorako bitarteko soil”.

Asier Abrisketa

Hamar urte dira Arte Sareak Herriko Benta hartu ebal. Arteako Udalarena dan plazako eraikinean gorpuztu dabe hamarkada batez burujaubetzea, etorkinen harrerea eta herri-gintza kolektiboa ardatz moduan daukazan proiektua. Urteurrena mugarri garrantzitsua da, atzen urteetan egindakoari atzera begirada bat bota eta etorkizunean be pentsetako. Izan be, kontratua amaituta, Arteako Udalak lehiaketa publikora aterako dau eraikina. Herriko Bentako kideek lizitazinora aurkeztuteko asmoa daukie baina honek ez dau euren etorkizuna ziurtatuten.

Taberna egiten diran jardue- ra kultural zein berbaldiakaz herriko plazeari bizia emon eta dendatxoagaz elikadura burujaubetzaren alde egiteaz gainera, Nikole Ziarrusta, Malu Egiluz eta Amina Achbab-ek BEGITUN azaldu dabenez, etorkinentzako harrera etxea da Herriko Benta. Hori da “garrantzitsuena” eta etorkinek harrera etxe duin bat izatea bermatutea lehenesten dabe, plazako eraikina mantenu- du ala ez. Holan, proiektuaren erronka eta aukerez, gaurko egoereaz zein etorkizunaz berba egiteko tartea izan dogu BEGITUN Ziarrusta, Egiluz eta Achbab-egaz.

Oin hamar urte hartu zenuen Arteako Herriko Benta, imajinetan dot aurrelanketa bategaz. Ze hutsune edo be-

har identifikau zan proiektua martxan ipinteko?

Proiektu sozial baten beharra ikusi genduan. Eraikin handi bat da, goian logelak ditu eta behean tabernea, eta logela horreek erabilera turistikoa batera mugatzea pena bat zala iruditu jakun. Erabilera sozial bat bul- tzatu gura genduan, eta errefu- jiaduentzako leku gitxi egozan Euskal Herrian, urgentziakoa zan migrazioari garrantzia berezia emotea. Holan, hasikeratik harrera etxe bilakatu gura izan dogu eraikina. Hortik harago be, herria egin eta komunitadea egitea garrantzitsua izan da. Alkartu eta alkar ezetuteko espazio bat sortu gura izan dogu, eta zentzu honetan eskerrak emon gura deusaguz Arteako herriari, hainbat herritar oso hurbil egon dira proiektutik, ta- bernan eta egitarau kulturean, baina baita harrera etxean, az- piegitureari jagokozan lanetan edota irakaskuntzatik.

Zeintzuk izan dira urteotan proiektuaren oinarri nagusiak?

Elikadura burujaubetzeak garrantzia berezia dau guretzako, oinarri nagusietako bat hori da. Honegaz batera alkarzaintzea eta alkarlaguntzea. Har- rera etxean esperientzia asko konpartiduten dira, batzuk atseginak eta beste asko bizi- pen gogorrek dira, beharizan desbardinak dagoz eta honeei alkarzaintzatik erantzuten saia- tuten gara. Beste alde batetik, irabazi asmorik bako proiektua garala azpimarratu gura dogu.



W *Tabernea sozializazio- rako espazio garrantzitsua da proiektuan eta herrian*

Irabazten dan dirua proiektuan bertan inbertiduten da, ez da inor aberasten. Esan daiegu aberastasuna azpiegituran edota proiektuaren hazkunderan inbertiduten dala (makinaria, instalazioak, eraikinak...).

Zelan laguntzen dozuez erre- fujiadu eta persona migra- tuak? Instituzino publikoek eskaintzen daben harrera ereduagaz alderatuta, zer eskaintzen dozue zuok?

Hasikeratik egon da harrera dui- naren ulerkerea mahaigainean. Ondo Etorri Errefuxiatuak-egaz lanean eta militantzia oso akti- bo batetik egin dogu. Ez dogu gura instituzino askotan emo- ten dan asistentzialismotik lan egin; saiatzen gara proiektuak izaera eraldatzaile eta politikoa izaten. Zelan egiten dogu hau? Adibidez euskera eta Euskal Herriari garrantzia bat emoten deusagu (lehen Arteako Herriko Benta euskera klaseak emoten ziran, oin Areatzako harrera etxean egiten dira). Na- zinoarteko egoereari eta gerra inperialisten gaineko kritikea be asko landu izan dogu, har- rera etxeko egunerokoan edota tabernako berbaldiakaz. Bes- talde, garrantzitsua da azaltzea gu ZEHAR-egaz alkarlanean gabizala. Programa publikoe- tan asilo eskaerak kudeatzen dituan alkar bat da hau, eta guk konbenio bat daukagu eu- rakaz. alkarlanean gabiz, honek aukerea emoten deusku ad- ministrazioaren mugak gain- ditzeke. Atzen hau lortzeako,

badago erraza ez dan lan bat: errefujiaduak politika objektu izatetik politikaren subjektu izatera pasetea.

Taberna-dendak ze funtzino beteten dau proiektuaren barruan?

Sozializaziorako espazio garrantzitsua da proiektuan eta herrian. Uste dogu herria bizirik mantenduten laguntzen daua- la, eta aldi berean proiektuaren helburuak lortzeako espazio garrantzitsua dala.

Hainbat gauza, batez be elikagaiak saltzean dira ber- tan; nondik datoz?

Bai, bertako produktuak garran- tzia berezia daukie. Okindegiko produktuak eta harategiko ba- tzuk Zeanuritik datoz. Barazkiak gure ortutik. Arrautzak, gaztaia, marmeladak, zukuak... inguruko baserrietatik datoz. Badagoz be horren gertukoak ez diran baina ekologikoak izatea saia- tzen garen hainbat produktu, beti ezin izaten da gertutasuna mantenu- ta.

Herrigintza kolektibotik egitea da zuon beste helbu- ruetako bat, zelan eragiten dozue horretan Artean?

Jarduera kulturalen bitartez egin izan dogu batez be. Jar- dunaldiak, antzerkiak, kontzer- tuak... antolatuten doguz, eta honen prestaketa desbardin- tan herriko eta Arratiako perso- na askok parte hartu dabe.

Ze ekarpen egiten deusie herriari antolatuten diran kontzertu eta berbaldiek?

Uste dogu bizitasuna eta kri-





Malu Egiluz, Amina Achbab eta Nikole Ziarrusta.

tikotasuna bultzatzen dabela. Sensibilidadea lantzean da, asko ikasi izan dogu. Eztabaidarako eta alkar ulertzeko tarreak zabaltzen dira berbaldi edo jardunaldietan.

Eraikina Udalarena da eta lehiaketa publikora urtengo da, ze aukera dagoz mahai-gainean eta zein da zuon asmoa lehiaketarean aurrean?

Bagabiz Udalagaz alkarrizketetan. Guk gurako geunkeena da eraikinak balio sozial bat izaten jarraitzea, hau da, beharrian desbardinak dabezan herritarrentzako funzino bat izatea, eta ez turismorako bitarteko soil. Zentzu honetan, guri proiektu publiko-komunitario bat izatea gustauko litzakigu. Dana dala, momentuz, lizitazioen bidea dago, eta guk proiektu moduan

aurkezteko intenzinoa daukagu.

Zer galduko leuke Arteak gaurko Herriko Benta barik?

Zer galdu ahal dan baino zer irabazten dan ipini gura dogu erdigunean. Gurea moduko proiektuek balio sozial handia daukiela uste dogu. Erronka bat ekarten deutso herriari, baina sensibleagoak eta aktiboagoak bilakatuten gara, ikasi egiten dogu eta komunitadea sendotzen da.

Eraikin barik gelditu ezker, ze alternatiba ikusten dozue?

Ezinbestean alternatibak bilatzen ibili gara. Harrera etxea da garrantzitsuena, eta hau mantendutena dogula bermatu gura dogu, eta horretarako alternatiben bila gabiz. Dana dala, ez dogu guztizko ziurtasunik oindino, ibilbidea egiteko dago oindino be.



Urteurreneko ospakizunak hilaren 18 eta 19an

Hamar urte betetea mugarri bat da Arteko Herriko Bentarena moduko proiektu eraldatzaile batentzako. Holan, egitarau berezia antolatu dabe aprilaren 18 eta 19rako eta ardatza, oin arte lortutakoaz berba egin eta etorkizunaz hausnartutea izango da.

Honetarako tarrea aprilaren 18an, zapatua, izango dabe 18:30ean Kultur Etxean. Izan be, *Artea Herriko Benta eta harrera etxeko proiektuaren oraina eta etorkizuna* berbaldia egingo da, proiektua hurrerotik ezetuteko gogoia daukientzako.

Honen ostean, hamargarren urteurrena ospatuteko grabau daben abesti eta bideokliparen estreinaldia egingo da Kultur Etxean bertan. Abesti eta bideokliparen grabaketan Herriko Bentako kideek, Arteko hainbat herritarrek eta euskal artista ugari hartu dabe parte: Petti, Itziar Ituño, Marina Urigoitia, Borja Estankona, Felix Valera, Jon Ander Perez, Agustin Perez Peironcely, Uri Carrey Mitxelena, Ainhoa Bernaola, Hodei Lete, Ruben Montero, Olatz Landajo, Aiala Landajo, Jantxu Domenech, Nikole Ziarrusta, Ihintza Angoitia, Asier Martin eta Luar Carrey. Bideoklipa ikusi ostean, 20:00ak

aldera trikitilariak girotutako kalejirea egingo da eta tabernan pintxo-potea egingo da.

Jurgi Ekiza zuzenean

Domekan barriz, hilak 19, Jurgi Ekiza abeslariak zuzeneko kontzertua eskainiko dau eguerdian, 13:30etik aurrera. Ekizak 2004an sortu eban Willis Drummond eta bertako gitarrak-jole, abeslari eta letragilea izan da. 2014an etenaldia izan eban taldeak eta hor ebatzi eban bakarkako bideari ekitea. Orduan argitaratu eban bere lehenengo diskoa, *Ekiza*. Aho-tsaz gainera gitarra akustikoa, gitarra elektrikoa, bajua, pianoa, organoa, melodika, sanplerrak, perkusinoa eta bateria grabau ebazan berak. Willis Drummond taldea barriro igon zan oholzetara baina 2024ko urtailean eskaini eban atzen kontzertua. Ekizak barriro ekin eutsan bakarka diskoa grabetari eta horren emaitza da *Argitzala*, bere atzen diskoa.



Guk gurako geunkeena da eraikinak balio sozial bat izaten jarraitzea, hau da, beharrian desbardinak dabezan herritarrentzako funzino bat izatea, eta ez turismorako bitarteko soil



BOLA-JOKOA

Binakako Bola Txapelketea Lemoan jokatu da aprilaren 18an eta 19an



Erredakzioa

Arratiako Komarkala Bola Txapelketea martiaren 7an hasi zan, eta martiaren 28an Arratiako Banakako Txapelketea jokatu zan Lemoan. Saio bi horreen ostean, aprilaren 18an, 16:30etik aurrera, Arratiako Binakako Bola Txapelketako kanporaketak jokatu dira; eta 19an, goizez, 10:00etatik aurrera, finala jokatu da, Lemoan be.

Banakako txapelketan lehia estua izan zan, eta atzen emaitza be horren erakusgarri izan zan. Izkander Barrenetxea (Lemoa)

izan zan txapelduna, 480 puntu batuta. Bigarren postuan Nerea Etxezarraga (Elorriaga) sailkatu zan, oso gertu, 474 puntugaz.

Komarkala Bola Txapelketea Martiaren 7an jokatu zan Arratiako Komarkala Bola Txapelketako lehenengo saioa Lemoan, eta hurrengo hilaren 25ean jokatu da Aroztegietan (Dima), arrastiko 16:30etik aurrera. Hauxe da sailkapena: 1-. Lemoa A 595; 2-. Elorriaga 545; 3-. Oba 537; 4-. Zeanuri 504; 5-. Bargondia (Lemoa B) 455; 6-. San Kristobal 342.

PELOTEA

Buruz Buruko Txapelketako lehen partidu biak irabazi ditu Rekaldek

“Geratuten diran partiduetarako lasaiago noa, beste bat irabazi ezkerio ia-ia finalurrekoan egongo naz”.

Asier Abrisketa

Xabier Rekalde dimoztarrak gogoz eta bide onetik hasi dau Buruz Buruko Txapelketea, garaien bikotxagaz. Binakakoan hamalau partidutik bi bakarrik irabazi ostean, banaka joko hobia erakusten dabil eta finalurrekoetara sailkatuteko puntu garrantzitsuak pilatu ditu, partidu biren faltan. Rekaldek lehenengo puntuen garrantzia azpimarratu dau BEGITU: “Geratuten diran partiduetarako lasaiago noa, beste bat irabazi ezkerio ia-ia finalurrekoan egongo naz”.

Buruz burukoaren lehenengo

partidua, kanporaketea, aprilaren 4an jokatu eban Labastidan. losu Eskiroz izan eban aurkari eta Dimakoa 22-13 nagusitu zan. Kanporaketea gaindituta, final-laurdenetako ligaxkara sartu zan Rekalde eta lehenengo partidua aprilaren 10ean jokatu eban Azkoitian. Rekaldek 22-15 irabaztea lortu eban, Unai Alberdiren kontra. Rekaldek azaldu dauanez, partidua bardinduta hasi eban eta 9-9ra arte bata bestearen atzetik ibili ziran baina hortik aurrera, fisikoak lagunduta eta Alberdi II kantsauta, dimoztarrak aurrera egin ahal izan eban 22ra arte, erosotasunez.

LASTERKETEAK

II. Dime Galapan antolatu dabe eskola-umeek aprilaren 17rako

Adin guztietarako lasterketak egingo dira, txikerrenetatik hasita nagusienetara arte.

Asier Abrisketa

Dimako Eskolako 5. mailako ikasleen ekimenez, bigarrenez egingo da datorren aprilaren 17an Dime Galapan lasterketa jardunaldia. Adin guztietako korrikalariak, 0 urtetik 99 urtera artekoak, konbidatu ditue parte hartzera. Dorsalen banaketea 16:30ean hasiko da frontoi txikian eta lasterketak 17:00etan abiatu dira.

Adinaren arabera, 60 metrotik 2 kilometrorra arte doazan ibilbide desbardinak egongo dira. 17:00etan txikerrenak urtengo dira eta gero joango dira nagusiagoak helmugatit urtetan. Umeentzako arrasti

berezia izango da aprilaren 17koa, izan be, gero eurentzako tailerrak egingo dira plazan eta

19:00etan, Bariku txiki ekimeneko ipuin kontaketea egongo da entzungai Abaroan.



MENDI MARTXEA

Aprilaren 25ean egingo da Zeberio Harana mendi jardunaldia

Aprilaren 21era arte emon daiteke izena 43, 24 eta 15 kilometroko martxetan.



Asier Abrisketa

Zeberioako Austarri Mendi Klubak aprilaren 25erako antolatu dau Zeberio Harana Mendi Martxea, Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuiturako puntuagarria izango dana. Hiru ibilbide izango ditu, hurrengo hurrengo, 43, 24 eta 15 kilometrokoak. Izenemotea aprilaren 21era arte egongo da zabalik *zirkuitua.com* webgunean eta ordurako 400 parte-hartzaileko muga

gainditu ez bada, egunean bertan be egin ahal izango da inskripzioa. Prezioa 15 eurokoa da federautentzako eta 18 eurokoa federauta ez dagozarentzako.

Ibilbide luzeak 43 kilometro eta 2.400 metroko desnibela dauka eta 07:00etan hasiko da; bidean Piku Bikotx, Garai-gorta, Aibelabe, Arrugaeta, Untzeta, Artanda, Upo, Tontorrandi, Mandoia eta Argiñaoko Atxetik pasauko dira. Ertainak barriz, 24 km eta

1.300 metroko desnibela ditu eta 09:00etan hasiko da; ibidean Mintegi, Upo, San Segismundo, Tontorrandi, Mandoia eta Argiñaoko Atxetik pasauta. Laburra, 15 kilometro eta 600 metroko desnibelekoa da eta 10:00etan hasita, Zeberiozana, Mandoia eta Argiñaoko Atxetik joango da. Bidean, kontrolpostuak eta jan-edan guneak egongo dira, bai eta amaieran urdaia, saltxitxak, sagardoa, dutxak eta bakotxarentzako opari bana be.

FUTBOLA

Andrazkoen Arratia A lidertzan ligea amaituteko partidu biren faltan

Aprileko bigarren astegoienean andrazkoen Arratia A taldeak bakarrik euki eban ligako partidua, beste taldeek Aste Santua dala-ta atsedena izan eben.



Erredakzioa

Andrazkoen Arratia A taldeak apirilaren 12an jokatu eban Urbietan Bizkerre B taldearen kontra eta 2-1 irabazi eban. Lehen gola Itsaso Kumik sartu eban 22. minutuan eta Maialen Cocos bigarrena 26.enean, kanpokoek atsedendira heldu orduko, 43. minutuan txikitu eben aldea markagailuan 2 eta 1ekoa sartuta. 20 jardunaldiren ostean eta ligea amaituteko partidu biren faltan Arratia lider da 43 puntugaz. Datorren partidua Alaves B taldearen kontra jokatu dau etxetik kanpo hilaren 19an, eguerdiko 12:30ean.

Beste taldeei jagokonean gizonzkoen nagusien Arratiako hiru taldeek jokatu ebezan apirilaren 1ean, eguaztena, euren partiduak eta danek irabazi eben. Andrazkoen Arratia A eta B taldeek atsedena izan eben jardunaldi horretan.

Gizonzkoen Arratia Ak 28

jardunaldiren ostean 46 puntu ditu eta laugarren postuan dago, igotea ahalbidetzen dauan hirugarren postutik 4 puntura. Datorren partidua Urbietan jokatu dau Gatika taldearen kontra hilaren 19an, 16:00etan.

Gizonzkoen Arratia B taldeak 28 jardunaldiren ostean 27 puntu ditu eta hamaseigarren postuan dago. Datorren partidua Urbietan jokatu dau Padura B taldearen kontra hilaren 18an, arrastiko 17:10ean.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobi taldeak 28 jardunaldiren ostean 59 puntu ditu eta bigarren postuan dago, igoera postuan. Hirugarren sailkatua lau puntura mantenduten dau. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Acero taldearen kontra hilaren 19an, 11:30ean.

Andrazkoen Arratia B

Andrazkoen Arratia B taldeak

atsedena izan dau atzen asteetan. Hirugarren postuan dago igoera promozinoa jokatzeko ahalbidetzen dauan bigarrenarengandik puntu bakarrera baina partidu bat gitxiago jokatu dabe arratiarrek. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dabe Ibaiondo Nerbioi A taldearen kontra hilaren 18an, 12:50ean.

Klubeko zuzendaritza aukeratuteko batzarra deitu dau Arratiak

Arratia Futbol Taldeko zuzendaritza Ezohiko Batzar Nagusia deitu dau apirilaren 20rako. Klubeko bazkide guztiak dagoz deituta Igorreko Urbietan zelaiko instalazioetan egingo dan batzarrera; lehenengo deialdia 18:00etan izango da eta bigarrena 18:30ean. Ezohiko batzarrean eztabaidarako gai bakarra egongo da, Arratia Futbol Taldearen zuzendaritza barriaren aukeraketa.

ANDRAK KIROLEAN

Arratiako andra kirolarien mahai-ingurua antolatu dau Berbalagunek

Asier Abrisketa

Arratiako Berbalagun taldeak, AEKren ekimenez euskaldun zahar eta barriak batu eta euskera praktiketako ekintzak antolatuten dauzan taldeak, zita berezia antolatu dau hilaren 17rako. Igorreko Lasarte

Aretoan, 19:00etan, izango da hitzordua. Bertan, Arantzarteko jantzarien jantzaldiaz gozatu eta hainbat andrazko kirolari entzuteko aukerea izango dabe bertaratutakoek.

Mahai-ingurua Arratiako gazte feministek osotuten daben Orratzak taldeko kideek

gidatuko dabe eta hainbat kirolarik hartuko dabe parte, batez be, Arratiakoak. Holan, Arratia futbol taldeko kapitaina, Nerea Beitia lemoaztarra eta Olaitz Arroyo igorretarra, Ruth Linaza herri kirolari lemoaztarra eta Oneka Aierdi korrikalari igorretarra egongo

PELOTEA

Euskal selekzioa munduko txapelkun izan da Mendozan

Amaia Aldai, Mikel Aurrekoetxea, Mikel Beldarrain eta Lur Ziarrusta dominaz beteta bueltau dira Arratiara.

Asier Abrisketa

Amaitu da Mendozan (Argentina) jokatu barri dan Esku Pelotako Nazinoarteko Konfederazioaren Munduko Txapelketea eta euskal selekzioa izan da domina gehien lortu dauzan taldea. Lau modalidade jokatu dira eta andrazko zein gizonzkoetan, gure selekzioak danetan lortu ditu dominak: urrezko lau, zidarrezko hiru eta brontzezko bat.

Joko internazionala modalidadean, andrazkoek urrea eta gizonzko zidarra eskuratu dabe; onewall modalidean, gizonzkoek urrea eta andrazkoek zidarra; lau hormetan andrazkoek urrea eta gizonzkoek zidarra eta atzenik, *llargues* modalidadean, andrazkoek urrea

eta gizonzko brontzea irabazi dabez.

Arratiarrak selekzioan

Delegazio arratiar garrantzitsua izan dau euskal selekzioan Mendozan, bai pelotarien zein talde teknikoaren aldetik. Amaia Aldai dimoztarra joko internazionala eta *llargues* modalidadeetan ibili da eta bietan irabazi ditu selekzioak urrezko dominak. Arteko Mikel Beldarrain barriz, lau hormakoan (zidarra) eta *onewall*-ean (urrea) lehiatu da. Mikel Aurrekoetxea eta Lur Ziarrusta barriz, modalidade guztietan ibili dira (urre bat, zidar bi eta brontze bat). Talde teknikoan gainera, Ibai Erauzkin Lemoakoa ibili da hautatzaile lez, *onewall* zein lau hormakoan (urre eta zidar bana).



dira; bai eta Harriti giza proba taldeko Urtza Sarrionandia

tiralari igorretarra eta Durangoko Jai-Alai taldeko kideak.

Olaitz Arroyo.
Argazkia: Jokin Gurtubai.



● ANTZEZLANA

Gaztetxoak literaturara hurbilduteko antzezlana dakar Ttanttaka konpainiak

Aprilaren 24an, 18:00etan taularatuko da Lasarte Aretoan *Mundua pitzatuta dago, baina hantxe gabiltza oinez* antzezlana.

Asier Abrisketa

Ttanttaka Teatroak Harkaitz Cano idazleak landutako album ilustratu bat dan antzezlana dakar hilaren 24an Igorrera, *Mundua pitzatuta dago, baina hantxe gabiltza oinez*. Fernando Bernuesen antzezlan baten oinarrituta eta Isabel Hergueraren ilustrazioak, liburutegiei eta literatureari egindako omenaldia da obrea, gaztetxoak literaturearen mundura hurreratu teko asmoagaz. Antzezlana liburu aurkezpen baten atxakiagaz hasiko da eta ipuinak berak hartuko

dau bizia.

"Alabeagaz zelan komunikau ez dakien aita batek paperezko hegazkin bat bialduten deutso egunero balkoitik, agur esateko. Hegazkinotan idatzitako mezuen bitartez, aitek literatura-misinoak ipinten deutzaz alaberari, liburuzain zorrotz baten konplizidateagaz argitu daizan. Holan, liburuen eta bizitzearen arteko loturea ezetuko dau neska-toak. Urte asko geroago, oin idazlea dan alabea, liburutegira bueltauko da bere lehenengo liburuan jaso dauan iniazino-esperientzia hori kontetako", dino sinopsiak.



● IPUIN KONTALARIA

Ipuin kontalaria dakar Dimako Bariku txikik

Aprilaren 17an Josune Garcia de Bikuña egongo da istorioak kontetan.

Asier Abrisketa

Hilero moduan, aprilean be egingo da Dimako Bariku txiki, herriko txikerrenei bideratutako kultur eta aisi eskaintzea bultzatuteko ekimena eta oingoan, ipuin kontalari bat konbidau dabe. Josune Garcia de Bikuña da konbidaua eta hilaren 17an, 19:00etatik aurrera, *Kontu kantari, ura dantzari* kontaketea egingo dau Abaroan.

Kontaketea hiru eta zazpi urte bitarteko umeentzako dago gomen-dautu eta ura da istorioen ardatza: "Itsasoan sartuko gara, putzuetan saltu egingo dogu eta jantzan eta kan-

tuan arituko gara euria erakarteko".

Arrasti berean, kontaketearen aurretik, 17:00etan II. Dime Galapaneke lasterketetan parte hartu ahal izango dabe umeek eta 18:00etan, umeentzako tailerrak egingo dira plazan.



● ANTZERKIA

Homosexualen kontrako errepresino faxistearen kontaketa antzeztua dakar Ékoma konpainiak Lemoara

Javier Liñerak zuzendutako *Lohi gorria* antzezlana hilaren 18an egongo da ikusgai, 20:00etan Kotxepinen.

**Asier Abrisketa**

Ékoma Teatrok ekoiztu, Javier Liñerak idatzi zein zuzendu eta

Aitor Perezek antzeztutako obrea da *Lohi gorria*; protagonistearen bizitzan eta honen osaba homosexualaren bizipenetan zehar

bidaia bat proposatuten dauana. Alemania naziaren kontzentrazio-esparru batetik, Espainiako kartzelara egiten dau saltu istorioak. Lana aprilaren 18an taularatuko da Lemoako Kotxepin Kultur Etxean, 20:00etan.

Obrak personaia bien eta euren bizipenen arteko ibilbidea erakusten dau. "Negarra eta irribarrea, amorrua eta adiskidetasuna, kabareta eta drama, izua eta poza, ankerkeria eta maitasuna buztartuaz. Ibilbide leun eta delikaua, sentibera eta gozoa. Iraganeko errealidade biren kontakizuna: Hitlerren Europa, Francoren Espainia", dino sinopsiak.

● ANTZERKIA

Diskopuntx familia antzerkia Lemoan**Asier Abrisketa**

Txaloka Antzerki Taldeak *Diskopuntx* lana eskainiko dau aprilaren 24an Lemoako Kotxepin Kultur Etxean. Emonaldia 18:30ean hasiko da, 60 minutuko iraupenagaz, eta 5 eta 12 urte bitarteko umei zuzendutako familia ikuskizuna izango da. Sarreraren prezioa 3 eurokoa izango da umeentzako, eta 6 eurokoa helduentzako.

Diskopuntx ikuskizunaren aurkezleak herrira helduko dira, eta irribarrez eta alaitasunez betetako zuzeneko *show*-a eskaintzea izango da euren helburua. Antolatzaileek azaldu dabenez, publikoak prest egon beharko dau ikuskizunagaz batera helduko diran "erokeria guztientzat".

● MIKRO IREKIA

Mikrofono irekiko emonaldia egingo da Areatzan

Aprilaren 24an egingo da Eszenatokia Zuretzako ekimena, 19:00etan Arragoetan.

Asier Abrisketa

Areatzako Udalaren ekimenez, hilaren 24an, barikua, Eszenatokia Zuretzako mikrofono irekien emonaldia egingo da Arragoetako plazan, 19:00etatik aurrera. Interesa daukan edonor igon ahal izango da oholtzara bertan abestu, jantzan egin, olerkiak errezitau edo norbere interes artistiko eta

eszenikoak erakusteko, norberaren pieza original edo artistenak taularatuteko. Antolatzaileen lana erraztu aldera, izena emoteko galdetegia zabaldu dau Udalak https://labur.eus/Mikro_Irekia26 estekan eta aprilaren 20ra arte egingo da zabalik izena emoteko aukerea. Bertan zehaztu daiteke zer eszenaratuko dan eta zenbat parte hartzaile egingo diran.



● LITERATUREA

Itxaso Martinen *Puntobobo* landuko dabe Arteako Irakurleen Txokoan

Aprilaren 17an, arrastiko 19:00etan egingo da Alaine Agirrek bideratutako saioa Kultur Etxean.



Asier Abrisketa

Arteako literaturazaleek aprilaren 17an izango dabe hileroko

Irakurleen Txokoko zitea. Hilero lez, Alaine Agirre idazleak lantzeako liburu bat aukeratu dau eta oingoan, Itxaso Martin Zapi-

rain (Donostia, 1981) idazle eta kazetaria, eta bere atzen eleberria *-Puntobobo* (Erein argitaletxea, 2024)- izango dira konbidauak. Bertan, ama baten eta bere alaben arteko isolamentua kontetan da, andren sufrimendua, osasun mentala eta familiarterako dinamikak ardatz dituan istorio baten.

"Ez da normala izango, esan eutsan medikuak umeak urtebete eukanean. Jaio aurretik, baina, amak jakin baekian barruan eroian umea ez zala besteak modukoa izango. Amak alaba etxean isolatu eban, eta herritarren txutxu-mutxuak areagotu egin ziran. Hain zan estua bien arteko harremana, beste alaba baten jaiotzak ez ebal hori haustea lortu. Etxe heze eta ilunean zuzturtuko dira hiru andrak, asinkronia baten; bizilagunen usteak inguratuta, sufrikario eta errezoen artean, patu ankerrari begira. Etxe horretan ez dira, inolaz be, hain erraz ustelduko sekretuak", dino sinopsiak.

● LITERATUREA

Bertol Arrietaren *Diesel* izango dabe berbaig Igorreko Literatura tailerlean


Aprilaren 20an, 17:00etan landuko da idazle zarauztarraren "diesel jentearen" gaineko liburu.

Asier Abrisketa

Hileko hirugarren astelehenero legez, Igorreko Kultur Etxeko goiko gelan herriko literaturazaleak batuko dira Esti Vivanco idazleagaz. Saio bakoitzeko liburu bat lantzean dabe bertan eta oingoan aukeratuako lana Bertol Arrieta Kortajarenaren *Diesel* (Alberdania, 2025) da. Zarauztarraren hirugarren ipuin liburu da hau eta zazpi narrazinok osotuten dabe, bizitzeagazko eszeptizismoa alkarbanatuten daben personaietan oinarrituta.

Holan, "heroitasun bako egu-

nerokoaren heroi arruntak, diesel jentea", dira protagonistak, sinopsiak dinoanez: "Errutinari aurre egiteko grinarik barik dabilen idazle blokeatua, umeen urtebetete ospakizunak kondena lez hartzean dauzan aita etsia, laurogetaka urteko pintore baten misterioa deskubridu gura dauan kazetari prekarioa, suizidaren maitasuna bilatzen dauan mutilzahar desesperaua...". Istorio honeek umore ikutu, batzuetan malenkoniatsu, bategaz kontetan ditu Arrietak, bizitzearen alde txarrari barre egiteko gogoagaz.



DUNBA

Erasmus + Zeberioako eskolan

Zeberioako Zubialde eskolako 6. mailako ikasleak

Zeberioako eskolako 6. mailako ikasleak gara. Oingo honetan guri tokau jaku Dunban idaztea eta horretarako aukeratu dogun gaia Erasmus + da.

Erasmus +, ingelesa ikasteko proiektu handi bat da, gai bat aukeratu, gai horren inguruan alkarregaz lanketa bat egin eta urtero bidaia bategaz amaituten dana. Aurten Txekia herrialdeagaz lan egitea tokau jaku moda gaiaren inguruan, hain zuzen



Česká Lípa herriagaz. Horregaitik eurakaz hartu-emonetan ipini ginan guzti hau prestatzeko. Esperientzia handi honen helburua, proiektu bateratu baten bitartez ingelesa ikastea eta bidaiaz disfrutetea da.

Hasikera-hasikeratik hartu-emonetan egon gara txekiar

ikasle eta irakasleakaz ikasitako guztia amankomunean ipinteko. Erropean inguruko informazioa bildu eta gero, alkarregaz Kahoot bat egin genduan, ikasitakoa modu dibertigarri baten erabiltzeko. Gero hainbat bideo dei egin genduzan alkar ezetuteko. Irakasleek be lan asko egin dabe

prozesu hau aurrera aterateko.

Maiatza hasikeran txekiarrek etorten diranean hainbat txangoren bitartez Bizkaiko hainbat leku ezetuteko doguz. Horrezaz gainera, gure eskolea eta gure proiektuaren azalpena be emongo deutsegu. Txekiarrek bikoteka geratuko dira gure etxeetan. Gu be bikoteka joango gara Txekia bagilaren hasikeran.

Guretzat oso esperientzia polita da, baina oso urduri gagoz. Bildurtuta eta poz handiagaz gagoz jentea ezetuteko eta eurakaz txango dibertigarriak egiteko. Ziur gagoz oso ondo pasauko dogula.



● AGENDEA

APRILAK 15 ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero udaletxean zabalik.

Apirilaren 24an izango dan musika, jantza eta poesia mikro irekirako izen-emotea apirilaren 20ra arte https://labur.eus/Mikro_Irekia26 estekan.

Maiatzaren 1ean eta 2an izango diran Upo Galapan Gautxori eta 15K mendi lasterketarako izen-emotea zabalik apirilaren 19ra arte upogalapan.blogspot.com.

AREATZA/IGORRE/LEMOA

Zure herria Bizkaiko herriak aktiboena izateko Kirolur 2026 Erronka martxan. Zure herria, Bizkaiko gainontzekoen aurka. Sariak dagoz jokoan eta irabazi ezker, herriko kirol taldeentzako materiala lortuko da. Promozinoko bideoa: <https://youtu.be/xDxbQY3EAs>. Zalantzarik izan ezkero tutoriala: https://youtu.be/_vGvUh_GFRY. 1-. Deskargatu Wellk App-a: <https://onelink.to/ncpuy>; 2-. Emon izena eta hautatu zure herriko taldea; 3-. Hasi puntuak batzean kilometro aktiboak eginaz apirilaren 15etik aurrera.

ARTEA

Apirilaren 25era arte, II. Andrazkoen Frontenis Txapelketan izena emoteko epea. Udaletxean, 94 673 92 05 telefonoan edo <https://labur.eus/arteafrontenis2026> estekan.

BEDIA

III. Ezin Dozu Galdu. Apirilaren 30era arte, liburutegian hartutako nobela grafikoen gaineko iruzkinak batuko dira, "zergatik ezin dozu galdu?" galdereari erantzuteko.

Apirilaren 24ra arte, maiatzaren 23an Albaola Itsas Kultur Faktoria bisitetako urtekerarako izen-emotea (20 euro). Informazio gunean 16:30etik 19:30era.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik egunera liburutegia zabalik.

Apirilaren 28ra arte, umeentzako antzerki tailerlean (apirilaren 30etik bagilaren 18ra eguaztenetan, zortzi saio) izena emoteko epea. Udaletxean, 94 631 57 25 edo harrera.dima@bizkaia.org.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Astelehenetik egunera 16:00etatik 20:30era eta eskola opor egun eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

Zinekluba. 20:00etan, *Rams (El valle de los cameros)*. Lasarte Aretoan.

Maiatzaren 14an NAN-a edo pasaportea izapidetzeko zitak eskatzeko aukerea zabalik. 09:00etatik 13:00etara 94 685 25 16 telefonoan.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

Apirilaren 20ra arte, Belaunaldien Arteko Egunean bazkairako txartelak salgai 20 eurotan. Jubiladuen tabeman eta Ganzabal MT-ren lokalean.

Apirilaren 30era arte, liburutegian euskerazko liburu bat maileguan hartzean dabenentzako zozketea, euskerazko liburuak erosteko 25 euroko zortzi bonu.

19:30etik 21:00etara, Ganzabal Mendi Taldeak apirilaren 19rako antolatutako Erioxako Turrugas (1.784 m) eta San Lorenzo (2.271 m) mendietara joateko urtekerarako eta maiatzaren 1, 2 eta 3an izango dan Europako meendietara urtekerarako izen-emotea. Ganzabalen lokalean edo 675 701 359 zenbakira deituaz.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazio zabalik egunero.

Dorsalak amaitu arte, maiatzaren 30ean jokatuko dan Ubidestro Trail 2026an izen-emotea zabalik kronoak.com webgunean.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik egunera 17:00etatik 19:00etara.

Apirilaren 17ra arte, Gorbeia Suzien 21K lasterketarako izen-emotea kronoak.com-en.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehen, martitzen eta egunetan liburutegia zabalik.

Apirilaren 20ra arte, Zeberio Harana Mendi Martxarako izen-emotea zirkuitu.com-en.

APRILAK 16 AREATZA

Urtekerea Artziniegara. 09:30ean, urtekerea Areatzatik; 11:15ean, bisitea Museo Etnografikora; 14:30ean, bazkaria; 17:15ean, bisitea Santxotena Museora eta 19:00etan, etxera bueltea. Uparan Jubilatua eta Pentsiodunen Elkarteak antolatuta.

ARTEA

Irakurleen Txokoa. 19:00etan, Itxaso Martinen *Puntobobo* eleberraren lanketea Alaine Agirrek bideratuta. Kultur Etxean.

19:00etatik 20:00etara, jubiladu eta pensionistak apirilaren 24an Azpeitiara joateko urtekerarako izen-emotea (40 euro). Jubiladuen lokalean.

DIMA

18:30etik 20:00etara, liburutegia espazio polibalente bilakatutako parte-hartze prozesuaren lehenengo batzarra. Liburutegian.

IGORRE

18:30ean, Igitie Arratiako Baseritar Agroekologikoen Elkarteak antolatutako *Zer jango dugu bihar? Gaurtik eragin!* berbaldia, BioLur eta Ereindajan alkarteetako kideakaz. Kultur Etxean.

19:00etan, Musika Kalean Eingogaz. Eguzki tabeman.

LEMOA

18:30ean, *Ordena eta konpromisoa: gure inguruko migrazioaren erronka eta aukerak* mahai-inguru irekia Bidaya alkatetako Hajar Samadi (Moroko) eta Lida Noori (Afganistan) giza eskubideen aldeko ekintzaileagaz. Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

Udabarria Loran. 19:00etan, Urtzi Ugalderean *AMA* libururaren aurkezpena. Kultur Etxean.

Saturrarango andren kartzelako presoan omenezko poemaren errezitaldia Diman

1937ko apirilean faxisten hegazkinek Diman egindako bonbardaketen Memoria Historikoa lantzeako Bakearen Lore Gara ekimenagaz, ermitetan kanpaikadak eta ekitaldixoa egin da apiril hasieran. Lanketeagaz jarraituteko, apirilaren 19an *Mantlingo alaba* errezitaldia egingo da parrokian, 12:30ean.

Ikuskizuna Saturrarango kartzelan 1937tik 1944ra katigu egondako 4.000tik gorako andren omenez, Mikel Etxaburu ondarrutarrak egindako poema liburuan oinarrituta dago. Etxaburuk errezitauko ditu poemak eta Nerea Zuloaga abeslari billaroztarrak kantauko ditu, akordeoi eta bibolin musikeagaz lagunduta.

APRILAK 17 AREATZA

09:00etatik 14:00etara, Bolibar Fundazioaren gaineko erakusketea Pleno Aretoan. Argazkien proiektzioa. Agiri originalak ikusteko aukerea.

ARTEA

19:00etatik 20:00etara, jubiladu eta pensionistak apirilaren 24an Azpeitiara joateko urtekerarako izen-emotea (40 euro). Jubiladuen lokalean.

DIMA

17:00etan, II. Dime Galapan lasterketak. 18:00etan, tailerak plazan.

Bariku txiki. 19:00etan, *Kontu kantari, ura dantzari* ipuin kontaketa musikatua Josune Bikunagaz. Abaroan.

IGORRE

19:00etan, Arantzarteren jantzialdia eta Berbalagun taldeak antolatu eta Oratzak-ek gidatutako Arratiako andra kirolarien mahai-ingurua. Lasarte Aretoan.

Kiñu Gaztearen XII. urteurrena. 20:00etan, Manex Astigarragaren umorezko bakarizketea. Kiñu Gaztearen.

LEMOA

18:15ean, Musika Kalean Eingogaz. Plaza Gorrian.

ZEANURI

Udabarria Loran. 19:00etan, Esne Berrian bertso-saio literarioa Uxue Alberdi, Nerea Ibarzabal eta Aissa Intxausti bertsolariakaz eta Amorante musikariagaz. Kultur Etxean.

APRILAK 18 AREATZA

Bolibar eraikinaren 100. urteurrena. Heriaren zerbitzura dagoen ondarea. 13:00etan, Agurra eta lora sorta eskaintza eta Nerea Zuloaga kantuan; 13:15ean, kopaua.

ARTEA

Herriko Bentaren X. urteurrena. 18:30ean, *Artea Herriko Benta eta Harrera Etxeko proiektuaren oraina eta etorkizuna* aurkezpena Kultur Etxean; 19:30ean, *Guztionea da!* bideo kliparen aurkezpena; 20:00etan, kalejireta eta pintxo-potea.

DIMA

Dimako ermiten ibilbidea. 08:00retan, martxera: San Balentin, Santiago, San Milan, Santa Ageda, San Bizente, San Antolin, San Lorenzo, Santa Mañe eta Santa Apolonia. Plazatik urtenda.

IGORRE

18:30ean, Arratiako Musika Eskola eta Eskola Municipal de Música de Tarragonako ikasleen kontzertua. Lasarte Aretoan.

LEMOA

09:30etik 13:30era, Bizkaiko Eskola Arteko Eskalada Ligako atzen jardunaldia. Alex Txikon rokodromoan.

16:30ean, Arratiako Binakako Bola Txapelketea. Kanporaketak.

20:00etan, Ékoma Teatroren *Lohi gorria* antzezlan. Kotxepin Kultur Etxean.

ZEBERIO

Gazte Eguna. 15:00etan, bertso-bazkaria Peio Molinuevo, Aiala Irurtia, Ekhi Zuluaga eta Maider

Altunagaz; 19:00etan, Orkresta Elektrotuna; 22:00etan, Euskoprincess, Boogie Riders, Gose ta Sue eta Barrk taldeen kontzertuak.

APRILAK 19 ARTEA

10:00etatik 14:00etara, merkadua. Plazan.

12:00etan, Eguzkilore euskal musika tresnen kontzertua, Arratiako Musika Eskola, Gangori Dantza Taldea eta Escola Municipal de Música de Tarragonagaz. Ailarak-Musikotopon.

Herriko Bentaren X. urteurrena. 13:30ean, Ekiza taldearen kontzertua. Herriko Benta.

IGORRE

Zinea. 17:00etan, *Chirp, Honey Hills-eko ikertzailea*; 19:30ean, *Cumbres borrascosas*.

LEMOA

07:30ean Lemoan eta 07:40ean Igorren autobusa. Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako Erioxako Turrugas (1.784 m) eta San Lorenzo (2.271 m) mendietara urtekera.

10:00etan, Arratiako Binakako Bola Txapelketea.

APRILAK 21 ARTEA

18:00etan, jubiladuen alkarteak antolatutako *Lamialdiak* berbaldia. Kultur Etxean.

IGORRE

11:00etatik 13:00etara, *Hobetu zure segurtasun digitala eta ikasi AA erabiltzen* tailerraren bigarren saioa: *Adimen Artifiziala zure egunerokorako*. Kultur Etxean.

APRILAK 22 ARTEA

18:00etan, 6 eta 9 urte bitartekoentzako Irakurleen Kluba. Liburutegian.

IGORRE

18:30etik 20:00etara, Errota Fundazioaren Biherko Arratia Plan Estrategikoaren aurkezpena. Kultur Etxean.

LEMOA

19:30etik 21:00etara, Ganzabal Mendi Taldeak maiatzaren 1, 2 eta 3an izango dan Europako mendietara urtekerarako izen-emotea. Ganzabalen lokalean edo 675 701 359 zenbakira deituaz.

APRILAK 23 ZEANURI

19:00etan, Xabier Berasaluze "Leturia"-ren *Koplarik kopla* kontzertua. Kultur Etxean.

APRILAK 24 AREATZA

19:00etan, musika, jantza eta poesia mikro irekia. Aragoeta plazan.

ARTEA

09:00etan, jubiladuen alkarteak antolatutako txangoa Azpeitiako Loiolako Santutegi eta Burdinbidearen Euskal Museora, bazkaria Urrestilla jatetxean. Autobus geltokian.

IGORRE

Alkar Ezetuz. 17:00etan, Arratia eta Zeberio 6. mailako ikasleen topaketetako lehen eguna. Arratia BHI Institutuan.

18:00etan, Tiantaka Teatroren *Mundua pitzatura dago, baina hantxe gabilza oinez* antzezlan. Lasarte Aretoan.

Kiñu Gaztearen XII. urteurrena. 19:00etan, Upo, Topotin eta Bartolina txiki pailazoan *Tronpeta magikoa* ikuskizuna. Kiñu Gaztearen.

LEMOA

18:30ean, Txaloka Antzerki Taldearen *Diskopuntx* umeentzako antzezlan. Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

Udabarria Loran. 19:00etan, Ane Ablanedoren *Zapalduen pedagogia* eta *Heziketa librea* liburuen aurkezpena. Kultur Etxean.

APRILAK 25 DIMA

11:00etatik aurrera, ekoizle, artisau eta ganadu azokea.

16:30ean, Arratiako Komarkala Bola Txapelketako bigarren tiraldia. Aroztegiatan.

IGORRE

Kintoen Eguna. 11:00etan, herri kirolak eta azokea; eguerdian kintoen argazkiak; 12:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 20:00etara, Ardoa Barrure fanfarrea eta 20:30ean, Gauargi erromeria Elexalde kaleko parkinean.

Kiñu Gaztearen XII. urteurrena. 11:00etan, herri kirol erakustaldia eta sortzaileen azokea Garbako aparkalekuan; 15:00etan, bazkaria gaztearen; arrastian Kintoen Eguneko egitaraua; 21:00etan, Ezta llen, Gailu eta Nize taldeen kontzertuak; gero, DJ Agata Lagata.

LEMOA

Belaunaldien Arteko Eguna. 09:30ean, PR Lemoatxa 1937 mendi martxea; 12:30ean, hamaiketako; 13:00etan, Durundi Barri taldearen jantzialdia; 13:30ean, poteoa eta Igel Txapelketea; 14:30ean, bazkaria eta bingoa; 18:00etan, txokolata eta erromeria.

ZEBERIO

Zeberio Harana Mendi Martxa. 07:00retan, 43 kilometroko martxea; 09:00etan, 24 kilometrokoa; 10:00etan, 15 kilometrokoa.

APRILAK 26 IGORRE

Zinea. 17:00etan, *Ninja laukiduna: Sorr3ra*; 19:30ean, *Amarga Navidad*.

APRILAK 29 ZEANURI

19:00etan, Karmelo Uriarteren *Ederriko Kontau behar dot* liburuen aurkezpena Xabier Amurizagaz batera. Kultur Etxean.

APRILAK 30 IGORRE

19:00etan, Musika Kalean Eingogaz. Zekutze tabeman.

MAIATZAK 1 AREATZA

Karpoko jaiak. 21:30ean, Upo Galapan Gautxori mendi lasterketearen urtekera.

LEMOA

Ganzabalen urtekera Europako mendietara maiatzaren 3ra arte. 06:00retan, Igorren eta 06:10ean, Lemoan. Cueto Cerralosa (1.159 m)-Morra de Lechugales (2.443 m)-Pica del Jierru (2.424 m)-Cabeza la Mesa (1.605 m)-Cabecina Quemada (1.597 m).

MAIATZAK 2 AREATZA

Karpoko jaiak. 09:30ean, Upo Galapan 15K mendi lasterketearen urtekera; 10:00etatik 13:30era, Ganadu, Artisau eta Ekoizle Azokea; 12:30ean, Areatzako Bandaren kontzertua Arratiako Musika Eskolako ikasleakaz batera; 14:00etan, Paella eta Gisadu Lehiaketen aurkezpena; 15:00etan, bazkari herrikoa; 17:00etan, plastikuzko ahate lasterketea errekan; 18:30ean, Giza proba desafioa Goikokalen; 20:00etan, Orkresta Elektrotuna.

MAIATZAK 3 AREATZA

Karpoko jaiak. 11:30ean, Areatzako ume jantziaren emonaldia; 12:30ean, Upo, Topotin eta Bartolina txikiren *Tronpeta magikoa* ikuskizuna. Plazan.

IGORRE

Zinea. 17:00etan, *Hoopers*; 19:30ean, *Altas capacidades*.

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

ALOKATZEKO ETXE BILA

Arratian, Igorren baltz hobeto, bere seme-alaba biakaz bizitza barri eta duin bat biziten hasi ahal izateko etxebizitza baten bila nabilen ama naz. Telefonoa: 662 312 325.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rock School. Gitarra klaseak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu 664 303 528 telefonora edo idatzi a.harillo.gracia@gmail.com helbidera.

TABERNARI EUSKALDUNEN BILA

Axular Herriko Tabernan tabernari bi behar dira astegoienerako. Interesdunek tabernan bertan galdetu, axularke@gmail.com helbidera idatzi edo telefonoz deitu: 94 673 70 92.

BIZIKLETEA SALGAI

Umeentzat, koloretsua, Dora Exploratzailaren marrazkiekaz. Lauzpabost urteko umearentzat. Errobera txikerrak, aurrean zestillea eta atzean pelutxearentzat kutxa. Egoera eta itxura onean. Eskatu edo

ikusteko deitu: 670 825 753.

LESBIANA EDO LESBIANAGAIEN BILA

60 urtetik gorako lesbiana eta lesbianagai bila. Edadeko andrea zara eta aisialdirako edota militantziarako espazio ez-hetero baten bila zabiz? Deitu edo bialdu mezua: 608 062 592. GARAJE-PLAZEA ALOKAIRUAN Kotxeak sartzeako garaje-plazea alokatzen da Zeanuriko plazan, Ibarreta auzoan. Interesdunek deitu edo idatzi 634 448 820 telefonora.

LANA

ZAINZAILA BILA

Zeanurin adineko pertsona zaintzeako eta konpainia egiteko persona baten bila gabiz, autoa izatea beharrezkoa da, ordutegi malgua eskaintzen da, baldintza interesgarriak. Interesdunak ipini hartu-emonetan: 648 419 078.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Mundua pizatuta dago, baina hantxe gabiltza oinez antzezlanerako.**

Urtzi Barrenetxea (Lemoa)
Kepa Intxausti (Igorre)



2

Lemoako Kotxepin Kultur Etxeak emondako **bina sarrera Lohi gorria antzezlanerako.**

Luis Carlos Abeal (Bedia)
Lur Olabari (Areatza)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. **BEGITUK 24 urte eta ehundaka lagun.**



94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

NAIARA Hartz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu - Boxarra egin eta tokunduten dogu
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94 673 70 87
Tel: 609 79 40 54

ZEKUTZE JATETXEA
Sabino Arana, 24
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

KIRRU ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tel. 94 631 92 00

GORBEIALDE
LANDA GARAPENA
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO GARAPENEAN LAGUNTZEN

BEGITU



Bolibar 100 urte

Apirilak 17, barikua
09:00etatik 14:00etara, Bolibar Fundazioaren gaineko erakusketa Pleno Aretoan. Argazkien proiektzioa.
**Agiri originalak ikusteko aukera egongo da.*

Apirilak 18, zapatua
Bolibar eraikinaren 100. urteurrena.
Herriaren zerbitzura dagoen ondarea.
Eskolan
13:00etan, Agurra eta lora sorta eskaintza.
Nerea Zuloaga kantuan.
13:15ean, kopaua.

Areatzako Udala Ayuntamiento de Areatza

BEGITU

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2026AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2026an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina dauka martxan Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 40€ 60€ 80€

begitu.eus



Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.